



# LAN HITZARMENA CONVENIO COLECTIVO

**2017-2021**



## **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako 2017-2021eko hitzarmen kolektiboa**

Convenio Colectivo de Centros de Enseñanza de Iniciativa Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2017-2021



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)



# **AURKIBIDEA**

## **I.TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **I.KAPITULUA EREMUAK**

- 1.artikulua.- Lurralde-eremua
2. artikulua.- Eremu funtzionala
3. artikulua.- Langile-eremua
4. artikulua.- Indarraldia

## **II. KAPITULUA HITZARMENA LUZATZEA, SALATZEA ETA AURRERAERAGINA**

- 5.artikulua.- Luzatzea
- 6.artikulua.- Salatzea eta aurreraeragina

## **III. KAPITULUA BATZORDE PARITARIOA**

- 7.artikulua.- Eratzea
- 8.artikulua.- Kideak
- 9 artikulua.- Egitekoak
- 10.artikulua.- Funtzionamendua

## **IV. KAPITULUA LANAREN ANTOLAKETA ETA DIZIPLINA**

- 11.artikulua.- Lanaren antolaketa

## **II. TITULUA LANGILEAK**

### **I. KAPITULUA LANGILEEN SAILKAPENA**

- 12.artikulua.-
- 13.artikulua.- lanpostu- hornikuntza
- 14.artikulua.- kategorien definizioa

### **II. KAPITULUA LANGILEEN KONTRATATZEA**

- 15.artikulua.- kontratu-motak
- 16.artikulua.- lege- eskakizunak
- 17.artikulua.- Kontratu finkora aldatzea
- 18.artikulua.- Aldi baterako laneko enpresak. Langileak lagatzeko kontratuak
- 19.artikulua.- Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko laguntzaileen kontratazioa

### **III.KAPITULUA PROBALDIA, LANPOSTU HUTSAK ETA LANPOSTU UZTEA**

- 20.artikulua.- Langileak sartzea
- 21.artikulua.- Probaldia
- 22.artikulua.- Antzinatasun- osagarriako egunak zenbatzea
- 23.artikulua.- Lanpostu hutsak, lanpostu berriak eta kategoriaz igotzea
- 24.artikulua.- Langileak borondatez lanpostua uztea

## **III.TITULUA LANALDIA, OPORRAK, GAIXOTASUNA, BAIMENAK, EGUNERATZE-, HOBEKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE-IKASTAROAK ETA ESZEDENTZIAK**

### **I.KAPITULUA LANALDIA**

- 25.artikulua.- Lan-egutegia
- 26.artikulua.- Urteko lanaldia
- 27.artikulua.- Eskola-orduen eta ordu osagarrien definizioa
- 28.artikulua.- Asteko lanaldia
29. artikulua.- Beste zenbait kategoria funtzionalen asteko lanaldia
- 30.artikulua.- Beste maila batean lan egitea. Ordainsariak
- 31.artikulua.- Zentroan bizi direnentzako lanaldia
- 32.artikulua.- Aparteko orduak
- 33.artikulua.- Gaueko lanak
- 34.artikulua.- Jantokia zaintzea

### **II.KAPITULUA OPORRAK**

- 35.artikulua.- Oporrak
- 36.artikulua.- Gabonak eta Aste Santua
- 37.artikulua.- Eskola- oporretako lanaldi jarraitua
- 38.artikulua.- Lanaldi jarraitua barnetegietan
- 39.artikulua.- Lana uzten duten langileen oporrak
- 40.artikulua.- Irakasleen uztaileko eta abuztuko lanaldia.

### **III.KAPITULUA GAIXOTASUNA, ORDEZKAPENAK, ETANALDIAK ETA BAIMENAK**

- 41.artikulua.- Aldi baterako ezintasuna
- 42.artikulua.- Ordezkapenak
- 43.artikulua.- Lan- kontratua etetea lanpostua erreserbatuta
- 44.artikulua.- Ordaindutako baimenak
- 45.artikulua.- Ordaindu gabeko baimenak
- 46.artikulua.- Bularra ematea, lanaldia murriztea eta egokitzea

### **IV. KAPITULUA ESZEDENTZIAK**

- 47.artikulua.- Nahitaezko eszedentzia
- 48.artikulua.- Senideren bat zaintzeko eszedentzia
- 49.artikulua.- Borondatezko eszedentzia, lanpostua erreserbatu gabe
- 50.artikulua.- Borondatezko eszedentzia, lanpostua erreserbatuta
- 51.artikulua.- Ikasturte bateko eszedentzia
- 52.artikulua.- Same edo alaba bakoitza zaintzeko eszedentzia
- 53.artikulua.- Ikastaroak egiteko urtebetetik beherako eszedentzia
- 54.artikulua.- Lanean berriz hastea eszedentzia ondoren

## **V. KAPITULUA EGUNERATZE-, HOBEKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE-IKASTAROAK**

- 55.artikuluak.- Hobekuntza- ikastaroak
- 56.artikuluak.- Azterketa egiteko lizentziak
- 57.artikuluak.- Hobekuntza- ikastaroak egiteko baimenak

## **IV.TITULUA ORDAINSARIAK**

### **I.KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

- 58.artikuluak.- Ordaintzeko modua
- 59.artikuluak.- Goragoko maila bateko eginkizunengatiko aldi baterako plusa
- 60.artikuluak.- Goragoko maila bateko eginkizunengatiko kategoriatu- aldaketa
- 61.artikuluak.- Hilabeteko aurrerakinak
- 62.artikuluak.- Ordainsariak
- 63.artikuluak.- Atzerriko ikastetxeetako lana

### **II.KAPITULUA SOLDATA- OSAGARRIAK**

- 64.artikuluak.- Gobernu- kargudunen aldi baterako osagarria
- 65.artikuluak.- Tutoretza- osagarria
- 66.artikuluak.- Antzinatasun- osagarria
- 67.artikuluak.- Aparteko haborokinak
- 68.artikuluak.- Aparteko pagen proportzioa
- 69.artikuluak.- Aparteko pagen hainbanaketa
- 70.artikuluak.- Garraio- edo distantzia- plusa
- 71.artikuluak.- Dietak, egun batetik gorako eskola- irteerak eta joan- etorrietako gastuak
- 72.artikuluak.- Jarraipen- saria

## **V.TITULUA SOROSPEN-ARAUBIDEA**

### **I.KAPITULUA LANeko SEGURtasuna eta OSASUNA**

- 73.artikuluak.- Laneko segurtasuna eta osasuna
- 74.artikuluak.- Sexu- jazarpena eta jazarpena morala

### **II. KAPITULUA HOBEKUNTZA SOZIALAK ETA ERRETIROAK**

- 75.artikuluak.- Laneko arropa
- 76.artikuluak.- Erretiro partziala eta birkokatzea
- 77.artikuluak.- Ikasteko laguntzak
- 78.artikuluak.- Jantoki- zerbitzua eskatzeko eskubidea
- 79.artikuluak.- Jantoki- begiraleak
- 80.artikuluak.- Erantzunkizun zibileko aseguruak eta istripu- aseguruak
- 81.artikuluak.- Hezkuntza- laguntzako espezialistak birkokatze lan- poltsa

## **III.KAPITULUA ESKUBIDE SINDIKALAK**

- 83.artikuluak.- Diskriminaziorik ez izateko eskubidea
- 84.artikuluak.- Sinatutako dokumentu kopia
- 85.artikuluak.- Ordu sindikalak metatzea
- 86.artikuluak.- Ordu- metaketaren negoziazioa
- 87.artikuluak.- Langileen batzarra
- 88.artikuluak.- Ordezkarien eskumenak, eskubideak eta bermeak
- 89.artikuluak.- Negoziazio- mahaiko kideak
- 90.artikuluak.- Langileen ordezkariek. Enpresa- batzordea eta langileen ordezkariek

## **VI.TITULUA FALTAK, ZEHAPENAK, ARAU-HAUSTEAK**

### **I.KAPITULUA FALTAK**

- 91.artikuluak.- Falta- motak
- 92.artikuluak.- Arau- hausteak preskribatzea

### **II.KAPITULUA ZEHAPENAK**

- 93.artikuluak.- Zehapenak eta haiek jakinaraztea
- 94.artikuluak.- Zehapenak murriztea

### **III.KAPITULUA ENPRESABURUEN ARAU-HAUSTEAK**

- 95.artikuluak.- Arau- hausteak eta haiek ebazteko bideak

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Lansarien erregimena ez aplikatzeko prozedura.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Enpresaren ondorengotza, haren titulartasuna aldatzearen ondorioz

**HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Euskalduntzea.

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– BERDINTASUN-PLANAK

**XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Egun eszedentzian daudenak 2020-2021 ikasturterako birkokatzea.

### **AZKEN XEDAPENAK**

# ÍNDICE

## TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### CAPÍTULO I

#### ÁMBITOS

artículo 1.- Ámbito territorial

artículo 2.- Ámbito funcional

artículo 3.- Ámbito personal

artículo 4.- Ámbito temporal

### CAPÍTULO II PRORROGA, DENUNCIA Y ULTRACTIVIDAD DEL CONVENIO

artículo 5.- Prórroga

artículo 6.- Denuncia y ultractividad

### CAPÍTULO III COMOSIÓN PARITARIA

artículo 7.- Constitución

artículo 8.- Integrantes

artículo 9.- Funciones

artículo 10.- Funcionamiento

### CAPÍTULO IV DISCIPLINA Y ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO

artículo 11.- Organización del trabajo

## TÍTULO II DEL PERSONAL

### 4 CAPÍTULO I CLASIFICACIÓN DEL PERSONAL

artículo 12.-

artículo 13.- Provisión de plazas

artículo 14.- Definición de categorías

### CAPÍTULO II CONTRATACIÓN DE PERSONA

artículo 15.- Clases de contratos

artículo 16.- Requisitos legales

artículo 17.- Pasp a contrato fijo

artículo 18.- Empresas de Trabajo Temporal. Contratos de puesta a disposición

artículo 19.- Contratación de Asistentes de Educación Infantil Primer Ciclo

### CAPÍTULO III PERÍODO DE PRUEBA, VACANTES Y CESES DEL PERSONAL

artículo 20.- Ingreso del personal

artículo 21.- Período de prueba

artículo 22.- Cómputo de días a efectos de complemento de antigüedad

artículo 23.- Vacantes, nuevas plazas y ascensos

artículo 24.- Cesos voluntarios de personal

## TÍTULO III ORNADA, VACACIONES, ENFERMEDAD, PERMISOS, CURSOS DE ACTUALIZACIÓN, PERFECCIONAMIENTO y RECICLAJE y EXCEDENCIAS

### CAPÍTULO I JORNADA DE TRABAJO

artículo25.- Calendario laboral

artículo26.- Jornada anual

artículo27.- Definición de horas lectivas y horas complementarias

artículo28.- Jornada semanal

artículo29.- Jornada semanal de otras categorías funcionales

artículo30.- Trabajo den distinto nivel. Retribuciones

artículo31.- Jornada para residentes en el centro

artículo32.- Horas extraordinarias

artículo33.- Trabajo nocturno

artículo34.- Vigilancia de comedor

### CAPÍTULO II VACACIONES

artículo35.- Vacaciones

artículo36.- Navidad y Semana Santa

artículo37.- Jornada continuada en vacaciones escolares

artículo38.- Jornada continuada en internados

artículo39.- Vacaciones para el personal de cesa

artículo40.- Jornada en julio y agosto para docentes

### CAPÍTULO III ENFERMEDAD, SUSTITUCIONES, SUSPENSIONES Y PERMISOS

artículo41.- Incapacidad temporal

artículo42.- Susticiones

artículo43.- Suspensión con reserva de puesto de trabajo

artículo44.- Permisos retribuidos

artículo45.- Permiso no retribuido

artículo46.- Lactancia, reducción y adaptación de jornada

### CAPÍTULO IV. EXCEDENCIAS

artículo 47.- Excedencia forzosa

artículo 48.- Excedencia para atender al cuidado de un familiar

artículo 49.- Excedencia voluntaria sin reserva de puesto de trabajo

artículo 50.- Excedencia voluntaria con reserva de puesto de trabajo

artículo 51.- Excedencia de un curso escolar

artículo 52.- Excedencia por cuidado de cada hijo

artículo 53.- Excedencia inferior a un año por cursillo

artículo 54.- Integración despuñes de excedencia

## **CAPÍTULO V CURSOS DE ACTUALIZACIÓN, PERFECCIONAMIENTO Y RECICLAJE**

- artículo 55.- Cursos de perfeccionamiento
- artículo 56.- Licencia para exámenes
- artículo 57.- Permisos para cursos de perfeccionamiento

## **TÍTULO IV RETRIBUCIONES**

### **CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES**

- artículo 58.- Forma de pago
- artículo 59.- Plus transitorio por función superior
- artículo 60.- Cambio de categoría por funciones superiores
- artículo 61.- Anticipos mensuales
- artículo 62.- Retribuciones
- artículo 63.- Trabajo en centros extranjeros

### **CAPÍTULO II COMPLEMENTOS SALARIALES**

- artículo 64.- Complemento temporal de los cargos de gobierno
- artículo 65.- Complemento de tutoría
- artículo 66.- Complemento de antigüedad
- artículo 67.- Gratificaciones extraordinarias
- artículo 68.- Proporción de pagas extraordinarias
- artículo 69.- Prorratio de las pagas extraordinarias
- artículo 70.- Plus transporte o distancia
- artículo 71.- Diestas, salidas escolares de más de un día y Gastos de desplazamiento
- artículo 72.- Premio de continuidad

## **TÍTULO V RÉGIMEN ASISTENCIAL**

### **CAPÍTULO I SEGURIDAD Y SALUD LABORAL**

- artículo 73.- Seguridad y Salud Laboral
- artículo 74.- Acoso sexual y moral

### **CAPÍTULO II MEJORAS SOCIALES Y JUBILACIONES**

- artículo 75.- Ropa de trabajo
- artículo 76.- Jubilación parcial y recolocación
- artículo 77.- Ayudas al estudio
- artículo 78.- Derecho a solicitar servicio comedor
- artículo 79.- Cuidadores/as comedor
- artículo 80.- Seguros de Responsabilidad Civil y Accidentes
- artículo 81.- Permiso parcialmente retribuido

### **CAPÍTULO III DERECHOS SINDICALES**

- artículo 83.- Derecho a la no discriminación
- artículo 84.- Copia de documentos firmados
- artículo 85.- Acumulación de horas sindicales
- artículo 86.- Negociación de la acumulación de horas

- artículo 87.- Asamblea de personas trabajadoras
- artículo 88.- Competencias, derechos y garantías de los representantes
- artículo 89.- Participantes en la Mesa negociadora
- artículo 90.- Representantes de las personas trabajadoras. Comité y delegados/as

## **TÍTULO VI FALTAS, SANCIONES, INFRACCIONES**

### **CAPÍTULO I FALTAS**

- artículo 91.- Tipos de faltas
- artículo 92.- Prescripción de infracciones

### **CAPÍTULO II SANCIONES**

- artículo 93.- Sanciones y su comunicación
- artículo 94.- Reducción de sanciones

### **CAPÍTULO III INFRACCIONES DE LOS EMPRESARIOS**

- artículo 95.- Infracciones y métodos de resolución

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.-** Procedimiento de inaplicación salarial.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.-** Sucesión de empresa por cambio de la titularidad de la misma.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA.-** Euskaldunización. 5

**DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA.-** Planes de igualdad.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA.-** Recolocación de excedentes actuales para el curso 2020-2021.

### **DISPOSICIONES FINALES**

## LABen IRAKURKETA

2009tik eguneratu gabe zegoen hitzarmen zaharkitua berritzeko borrokan langileok gogor jardun genuen.

LAB sindikatuko irakaskuntzak, afiliatu, delegatu eta liberatuekin prozesu parte hartzaile baten ondoren luzatutako Euskal Herrirako Euskal Eskola Publiko Komunitario baten proposamena ezaguna da jada eta LAB sindikatuak argi zuen hitzarmen berriak langileen beharrak asetzeaz gain, Euskal Eskola Publiko Komunitarioako bidean, gutxieneko batzuk bete behar zituela:

- Kontratazioa batzordeak: meritu, ahalmenean eta berdintasunean oinarrituak. Entxuferik ez!
- Enplegua mantentzeko, lanpostu galeren aurrean langile guztiak birkokatzeko bermedun prozedura bat.
- Langileen ordezkariekin elkarlanean birkokatze eta kontratazioa prozesu gardenak egitea.
- Langileen euskalduntzean urratsak.
- Lan baldintza okerrenak dituzten langileen artean hobekuntza nabarmenak.
- Ikastetxeetan inbertitzen den diru publikoaren kudeaketa gardenak egiten denaren jarraipena egitea

Eta LABentzat eskola eredu bat markatzen duten irizpide hauez gain, badira hitzarmenean jaso diren beste hainbat eduki onartezinak direnak:

- Langileak kaleratzeko diru publikoa jartzea.
- Birkokapen prozedura bat izan ordez, zuloz betetako lan poltsa bat ezartzea.
- 58 urte gorakoentzat lanaldia murrizteko eskubidea desagertu da.
- Hezitzaile laguntzaile kategoria mantendu eta orain arte hitzarmenak zioenaren aurka, patronalek kategoria horretan kontratatutako langile horiek lan baldintza eskasagoetan mantentzea.
- Lanbide Heziketan negoziatorik gabe, eskaintza partzian edukirik gabe, ikasturte hasiera jarraibiderik gabe hitzarmena sinatzea.
- Garbiketa metrajerik gabe.
- Ordutegien erregistroa negoziatu gabe.
- Patronalei soldata igoerak ez aplikatzeko klausula malguagoa eta erraztasun gehiagorekin aplikatzeko aukera zabaldu zaie
- ...

Azaldu ditugun arrazoiak medio, LAB sindikatuak hitzarmen berriari bere sinadurarekin babesik ez ematea erabaki zuen.

Baina bidea ez da hemen amaitu, egunera ikastetxeetan eta jendartean lanean jarraituko dugu Euskal Herri burujabe batek behar duen Euskal Eskola Publiko Komunitarioa IRUTEN, eskola feminista, euskalduna, metodologia eraldatzaileak dituena, hezkidetzan oinarritua, kalitatezkoa eta guztientzat izango dena.

Asko dugu egiteko, baina guztion indar eta gogoz eguneroko urratsa txikiekin jarraitu dezagun "EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA IRUTEN".

*\*OHARRA: Euskara eta gaztelarazko bertsioen artean interpretazioan egon daitezkeen aldean artean, Gizarte Ekimeneko hitzarmenean gaztelarazkoa da balioa duena*

## LECTURA DE LAB

En la lucha por renovar el convenio que no se había renovado desde el 2009 estaba obsoleto. Las trabajadoras y trabajadores luchamos con firmeza para renovarlo.

El sindicato LAB, después de un proceso participativo con las afiliadas/os, delegadas/os y liberadas/os, hizo la propuesta de una Escuela Pública Comunitaria Vasca para Euskal Herria, y el LAB tenía claro que el nuevo convenio no sólo tenía que satisfacer las necesidades de las trabajadoras/es, sino que, en el camino hacia la Escuela Pública Comunitaria Vasca, debía cumplir unos mínimos:

- Comisiones de contratación: basadas en el mérito, la capacidad y la igualdad. ¡Nada de enchufes!
- Un procedimiento con garantías de recolocación de todas las trabajadoras y trabajadores ante pérdidas de puestos de trabajo, para mantener el empleo.
- Realizar procesos transparentes de recolocación y contratación en colaboración con las y los representantes de las trabajadoras y trabajadores.
- Pasos en la euskaldunización de las trabajadoras y trabajadores.
- Mejoras significativas entre el personal con peores condiciones laborales.
- Seguimiento de la gestión transparente del dinero público que se invierte en los centros educativos

Y además de estos criterios que marcan un modelo de escuela para LAB, hay otros muchos contenidos que se han recogido en el convenio que son inaceptables:

- Poner dinero público para despedir.
- Sustituir un procedimiento de reubicación por una bolsa de trabajo llena de agujeros.
- Desaparece el derecho a la reducción de jornada para mayores de 58 años.
- Mantener la categoría de auxiliar educativo y en contra de lo que hasta ahora decía el convenio, mantener a estas trabajadoras contratadas por las patronales en esta categoría en condiciones laborales inferiores.
- Firmar un convenio sin negociación en Formación Profesional, sin contenido en oferta parcial, sin instrucciones de inicio de curso.
- Limpieza, sin regular el metraje.
- Sin negociar el registro de horarios.
- Se abre a las patronales la posibilidad de aplicar una cláusula de descuelgue más flexible y con más facilidades
- ...

7

Por las razones que hemos expuesto, el sindicato LAB decidió no apoyar con su firma el nuevo convenio.

Pero el camino no ha terminado aquí, día a día seguiremos trabajando en los centros escolares y en la sociedad hilando la Escuela Pública Comunitaria Vasca que necesita una Euskal Herria soberana; una escuela feminista, euskaldun, con metodologías transformadoras, basada en la coeducación, de calidad y que sea para todas y todos.

Tenemos mucho que hacer, pero con la fuerza y las ganas de todas/os, sigamos poquito a poco "hilando la escuela pública comunitaria vasca" (Euskal Eskola Publiko Komunitarioa Iruten).

*\* Nota: entre las posibles diferencias interpretativas entre las versiones en euskera y castellano, en el convenio de Iniciativa Social es el castellano el que tiene valor.*







# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE EKIMENENKO IKASTETXEETAKO 2017-2021EKO HITZARMEN KOLEKTIBOA

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### I. KAPITULUA

##### EREMUAK

#### 1. artikulua.- Lurralde-eremua.

Hitzarmen hau Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetan aplikatuko da.

#### 2. artikulua.- Eremu funtzionala.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko gizarte-ekimeneko ikastetxeentzat izango da hitzarmena; zehazki, jardueratzat unibertitatez kanpoko irakaskuntza arautua dutenentzat.

Irakaskuntza ez arautua ematen duten eta hitzarmen honetan sartzen ez diren enpresak eta sektoreak hitzarmen honi atxiki dakizkioke, betiere Langileen Estatutuko 92. artikuluan zehazten den legez.

Musika Eskolek hitzarmen honen eranskin bat negoziatu ahal izango dute, eta bertan, batetik, euren espezifikotasunak jasoko dira, eta, bestetik, soldata-taulak eta asteko eta urteko lanaldiak. Hitzarmen honek indarrean dirauela, aipatu eranskinaren gainean akordiorik lortu ezker, jaso egingo da. Adostasun batera heltzen ez den bitartean, 2005eko azaroaren 10ean itundutako baldintzak mantenduko dira (2006ko urtarrilaren 23ko EHAA) soldata-taulei dagokienez ezik, irakaskuntza espezializatueta unean-unean indarrean dauden soldata-taulak aplikatuko baitira (Hitzarmen honetara atxiki dira).

Hitzarmen honen eremutik kanpo geratzen dira ikastolak, bai eta erlijiosoak eta abadeak prestatzeko helburua duten ikastetxeak ere.

#### 3. artikulua.- Langile-eremua.

Hitzarmen honek lan-kontratuz ikastetxe batean besterentzako lanean diharduten langile guztiengan izango du eragina, betiere ikastetxeok hitzarmen honen eremuan sartzen badira.

Langileen Estatutuaren 2.1. artikuluan jasotako langileak eta zuzendari-kudeatzaile, administratzaile eta horien balioakideak direnak ere hitzarmen honetatik kanpo uzten dira.

#### 4. artikulua.- Indarraldia.

Hitzarmenaren indarraldia 2017ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartekoa izango da, gai bakoitzerako berariaz ezarritakoa salbu, aldeek noiz sinatzen duten edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zer egunetan argitaratzen den gorabehera. Aldi hori, dena den, espresuki, aldi baterako eta halabeharrez luzatuzat joko da, harik eta 2022. urteari dagokion hitzarmena indarrean sartu arte.

Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

## II. KAPITULUA

### HITZARMENA LUZATZEA, SALATZEA ETA AURRERAERAGINA

#### 5. artikulua.- Luzatzea.

Hitzarmena urtez urte luzatuko da 2021eko abenduaren 31tik aurrera, isilbidezko luzapenaren bidez, baldin eta ordezkari-tza-aldeetakoren batek ez badu hura espresuki salatzen gutxienez haren indarraldia edo haren luzapenetako baten indarraldia amaitu baino 2 hilabete lehenago.

## **6. artikulua.- Salatzea eta aurreraeragina.**

Hitzarmena garaiz eta behar den moduan salatuta, Langileen Estatutuaren 86.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako espresuki erabakitzen da hitzarmenak aurreraeragin mugagabeko araubidean jarraituko duela, harik eta lurralde-eremu eta eremu funtzional berak dituen eta hura ordeztzen duen estatutuaren arabera beste hitzarmen kolektibo bat sinatu arte. Halaber, alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hurrengo hitzarmena negoziatzeko batzordea eratzeko, hitzarmenaren indarraldia edo haren luzapenetako baten indarraldia amaitu baino hilabete lehenago, beranduenez.

### **III. KAPITULUA**

#### **BATZORDE PARITARIOA**

## **7. artikulua.- Eratzea.**

Hitzarmena sinatu eta hamabost egun naturaleko epean eratuko da batzorde paritarioa.

Batzorde paritarioaren erabakiak lotesleak izango dira. Haren bileren akta egin beharko da, eta eztabaidatutako gaiak artxibatu eta erregistratu beharko dira.

## **8. artikulua.- Kideak.**

Batzordea, enpresaburuen elkarte eta erakundeetako 6 kidek eta sindikatuen izenean beste 6 kidek osatuko dute. Esan behar da enpresaburuen elkarteok eta sindikatuok Hitzarmena izenpetzen dutenak besterik ez direla izango, eta batzuek eta besteek, gutxienez ere, postu bana izango dutela batzordean.

## **9. artikulua.- Egitekoak.**

- a) Egiteko hauek izango ditu batzordeak: Hitzarmen kolektiboa aplikatzea eta interpretatzea; bide judizialera jo aurretik esku hartu beharko du, hitzarmenaren interpretazioari edo aplikazioari buruzko gatazka kolektiboa dagoen kasuetan.
- b) Legean agindutakoaren arabera erabakia hartu behar dituen kontuez arduratzea.

## **10. artikulua.- Funtzionamendua.**

Batzordeak bere funtzionamendu-araudia egingo du, printzipio hauek kontuan hartuta:

1. Batzordean horretarako aukeratzen diren kideek jardungo dute batzordeburu eta idazkari.
2. Erabakiek balioa izan dezaten, batzordea eratzean alde bakoitzeko bi kidek egon behar dute, betiere, alde bakoitzaren botoen % 50 ordezkatzeko badute gutxienez.
3. Boto kalifikatuaz eta erakundeen ordezkagarritasun ofizialaren arabera hartuko dira erabakiak; horretarako, enpresaren aldearen zein langileen ordezkarien % 50ek aldeko botoa eman beharko dute gutxienez.
4. Batzordeburuak deituko ditu batzordearen bilerak, edo, bestela, bi aldeetako edozeinek.
5. Idazkariak erabakien berri emango die hitzarmena negoziatzeko batzordeko kideei, eta haien esku utziko ditu batzorde paritarioaren aktak, hala eskatzen badute.

### **IV. KAPITULUA**

#### **LANAREN ANTOLAKETA ETA DIZIPLINA**

## **11. artikulua.- Lanaren antolaketa.**

Ikastetxearen titularra den erakundearen berariazko eskumenean sartzen dira lanaren antolaketa eta diziplina, eta haiek Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko ikastetxeetan aplikatzekoak diren indarreko xedapenetan ezarritakoari jarraituko diote.

**II. TITULUA**  
**LANGILEAK**  
**I. KAPITULUA**  
**LANGILEEN SAILKAPENA**

**12. artikulua.-**

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden langileak bi taldetan sailkatuko dira, duten titulazioaren eta ikastetxean egiten duten lanaren arabera:

- 1. taldea: Irakasleak.
- 2. taldea: Irakasle ez diren langileak.

**1. taldea: Irakasleak**

**1.1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa:**

**1.1.1 Maisua/maistra.**

**1.1.2 Haurtzaindegiko teknikari espezialista (HTE).**

**1.1.3 Laguntzailea.**

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileak 1. taldean (irakasleak) sartzen dira, 2020-01-01etik ondoreekin eta soilik helburu hauek lortzeko: (i) beste etapa batzuetan sortzen diren lanpostu hutsak sustatzea, (ii) jantokiaren doakotasuna bermatzea, (iii) Kristau Eskolak konpromisoa hartzea kolektibo hau IRALE programan sartzeko eska diezaion Eusko Jaurlaritzari, (iv) kargen manipulazioak langile horien haurdunaldian zehar eragiten dituen arriskuak sartzeko.

**1.2 Haur Hezkuntzako 2. Zikloa eta Lehen Hezkuntza:**

1.2.1 Irakaslea.

**1.3. DBHko 1. Zikloa (Diplomatura)**

1.3.1 Irakaslea.

**1.4. DBHko 1. Zikloa (Lizentziatura eta Graduak), DBHko 2. Zikloa eta Batxilergoa**

1.4.1 Irakaslea.

**1.5. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloak, Goi Mailako Gradua eta Zereginak Ikasteko Gelak:**

1.5.1 Irakasle titularra.

1.5.2 Irakasle laguntzailea edo agregatua.

1.5.3 Irakasle espezialista.

**1.6. Hezkuntza Berezia:**

1.6.1 Irakasle titularra.

1.6.2 Hezkuntza-laguntzako espezialistak: kategoria hau 1. taldean (irakasleak) sartzen da, 2020-01-01etik ondoreekin eta soilik helburu hauek lortzeko: (i) beste etapa batzuetan sortzen diren lanpostu hutsak sustatzea, (ii) jantokiaren doakotasuna bermatzea, (iii) Kristau Eskolak konpromisoa hartzea kolektibo hau IRALE programan sartzeko eska diezaion Eusko Jaurlaritzari, (iv) kargen manipulazioak langile horien haurdunaldian zehar eragiten dituen arriskuak sartzeko.

### **1.7. Helduen Hezkuntza Iraunkorra:**

1.7.1 Irakasle titularra.

1.7.2 Irakasle laguntzailea edo agregatua.

### **1.8. Beste langile batzuk:**

1.8.1 Hezkuntzako orientatzailea/aholkularia.

1.8.2 Instruktoea.

1.8.3 Begiralea.

1.8.5 Hezitzailea.

### **1.9. Aldi baterako kategoria funtzionalak:**

1.9.1 Zuzendaria.

1.9.2 Zuzendariordea.

1.9.3 Ikasketa-burua.

1.9.4 Saileko burua, mintegiko burua, zikloko edo arloko burua.

Irakasleen aldi baterako kategoria funtzionalak eta haien lanaldiak eta berariazko soldata-osagarriak eginkizun horiek dirauten bitartean iraungo dute.

### **1.10. Irakaskuntza espezializatuak:**

1.10.1 Zuzendaria.

1.10.2 Zuzendariordea.

1.10.3 Ikasketa-burua.

1.10.4 Saileko burua.

1.10.5 Irakasle titularra eta espezifikoa.

1.10.6 Irakasle laguntzailea edo agregatua.

1.10.7 Instruktoea.

1.10.8 Hezitzailea.

## **2. taldea: Irakasle ez diren langileak**

### **2.1. Irakasle ez diren langile tituludunak:**

2.1.1 Goi-mailako tituludunak.

2.1.2 Erdi-mailako tituludunak.

### **2.2. Administrazio-langileak:**

2.2.1 Kudeatzailea.

2.2.2 Administrazioko edo idazkaritzako burua.

2.2.3 Bulego-burua.

2.2.4 Ofizial administraria, kontularia, merkataritza-agentea.



--

2.2.5 Administrazio-laguntzailea.

### **2.3. Laguntza-langileak:**

2.3.1 Ikasleen zaintzaileak.

### **2.4. Zerbitzu orokorretako langileak:**

2.4.1 Etxezaina.

2.4.2 Atezaina.

2.4.3 Zaintzailea, gauzaina.

2.4.4 Harrerailea. Telefonista.

2.4.5 Mantentze-lanetako, lorezaintzako eta askotariko lanbideetako langilea.

2.4.6 1. mailako ofiziala, 1. maila bereziko gidaria.

2.4.7 Gelazainburua.

2.4.8 Garbiketa-, jostintza-, ikuzketa- eta lisaburdina-zerbitzuko langilea eta jantoki-zerbitzuko langilea.

2.4.9 Sukaldeko burua.

2.4.10 Sukaldaria.

2.4.11 Sukaldeko laguntzailea.

2.4.12 2 mailako ofiziala, 2. mailako gidaria.

2.4.13 Kualifikaziorik gabeko langilea.

Hitzarmen honetan jasota ez dauden kategoria guztiak homologatuko ditu hitzarmen kolektiboaren batzorde paritarioak.

13

### **13. artikulua.- Lanpostu-hornikuntza.**

Gorago zerrendatutako kategoriak adierazpen-mailakoak besterik ez dira, eta ez dago zertan guztiak hornituta eduki ikastetxearen lan-bolumenagatik edo ikastetxearen jardueragatik horren beharrik ez bada, betiere, indarrean dauden lege-xedapenenek eskatzen ez badute maila, gradu edo irakaskuntza-modalitate bakoitzerako edukitzea.

### **14. artikulua.- Kategorien definizioa.**

Hitzarmena honen II. eranskinean dago kategoria bakoitzaren definizioa.

## **II. KAPITULUA**

### **LANGILEAK KONTRATATZEA**

### **15. artikulua.- Kontratu-motak.**

Ikastetxeetan dauden lanpostu hutsak betetzeko, kontratu mugagabeak egingo dira, legeak aurreikusitako salbuespenak salbuespen. Kasu hauetan egin ahal izango dira iraupen mugatuko lan-kontratuak:

- Obra edo zerbitzu jakin baterako direnean. Ezin izango da inola ere egin mota honetako kontraturik enpresaren jarduera iraunkorraren parte diren lanetarako.
- Ikastetxeko behin-behineko edo noizbehinkako zerbitzuatarako eta zerbitzu esporadikoetarako direnean.
- Lanpostua gordetzeko eskubidea duten langile finkoak ordezkatzeko denean; kasu horretan, idatziz jasoko da zer langile ordezten den eta zergatik.
- Indarrean dagoen legeriak aldi zehatz baterako onartzen dituen gainerako kasuetan. Haietan, gutxieneko iraupena ikasturtea amaitu artekoa izango da (abuztuaren 31).

Ikasturte osorako irakasleen eta hezkuntza-laguntzako espezialisten kontratuetan, 365 eguneko indarraldia bermatuko da.

Zereginak pilatzeagatiko kontratuak 12 hilabetez luzatu ahal izango dira, gehienez, ikastetxean lehenengoz lan egiten duten pertsonen egiten zaizkien kontratuen kasuan.

Hitzarmenaren baldintzek haren eremuan beren jarduera egiten duten langile guztiei eragiten diete, erabilitako kontratu-mota, adina edo sexua gorabehera.

**16. artikulua.- Lege-eskakizunak.**

Aldi zehatz baterako lan-kontratuak idatziz eta bi kopian egin beharko dira; aldeek kopia bana gordeko dute; Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratuko da kontratua, eta haren oinarritzko kopia emango zaie langileen legezko ordezkariari, indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituz.

**17. artikulua.- Kontratu finkora aldatzea.**

Zereginen pilaketako kontratudun eta obra edo zerbitzu jakin baterako kontratudun langile guztiak automatikoki aldatuko dira kontratu finkora, baldin eta ikasturte oso bat iragan ondoren beren zereginak betetzen jarraitzen badute, salbu eta lanak aldi baterako izaera badu.

**18. artikulua.- Aldi baterako laneko enpresak. Langileak lagatzeko kontratuak.**

Hitzarmen honen pean dauden ikastetxeek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak kontratatzen dituztenean, bermatu behar dute hitzarmen honetan kategoriatik kanpo ezarri diren ordainsari eta lanaldi berak izango dituztela laga dizkieten langileek. Betebehar hori espresuki jasoko da aldi baterako laneko enpresak eta enpresa erabiltzaileak sinatu duten langileak lagatzeko kontratua.

**19. artikulua.- Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko laguntzaileen kontratazioa.**

Kategoria honetarako kontratuak hitzarmen honen eremuko ikastetxe batean 2019-2020 ikastertera arte laguntzaile gisa lan egin duten langileei soilik egin ahal izango zaizkie.

14

Ikastetxeek teknikari-kategorian aritzeko beharrezko titulua lortzea erraztuko diete laguntzaile kontratatuei. Enpresaburuen elkarteek beharrezko titulua lortzeko ikastaroak sustatuko dituzte. Laguntzaileak beharrezko titulua lortzen duenean teknikari-kategoria izango du automatikoki.

### III. KAPITULUA

#### PROBALDIA, LANPOSTU HUTSAK ETA LANPOSTUA UZTEA

**20. artikulua.- Langileak sartzea.**

Hitzarmen honek hartzen dituen langileak langilearen eta ikastetxearen titularraren arteko aukerako kontratazioz hartuko dira, 76. artikuluan ezarritako kasuetan ezik.

**21. artikulua.- Probaldia.**

- Enpresan sartu berri diren langile finko guztiak, bestelakorik itundu ezean, probaldian egongo dira hitzarmenak beraien lanbide-kategoriarako ezartzen duen epeaz. Probaldia, irakasleen eta irakasle ez diren langile tituludunen kasuan, lau hilabetekoa izango da gehienez, eta gainerako langileen kasuan, hamabost egunekoa gehienez. Ondorio horietarako, ez da zenbatuko aldi baterako ezintasunaren egoeran emandako denbora.
- Probaldian, langileak zein ikastetxearen titularrak askatasun osoz indargabetu dezakete lan-kontratu, aurrez jakinarazteko betebeharririk gabe eta kalte-ordainik hartzeko inongo eskubiderik gabe.
- Probaldia amaitutakoan, langilea ikastetxearen plantillan sartuko da, eta ondorio guztietarako zenbatuko da probaldian emandako denbora.
- Langile kontratudun guztiei probaldirako balioduntzat joko zaio ikastetxean aurreko kontratatuetan emandako denbora, betiere eginkizun beretarako izan bada.



**OHARRAK**

--

- e) Ezin izango da probaldirik ezarri, baldin langileak lehenago lan egin badu ikastetxean, eta probaldiaren gehieneko iraupenaz baino luzaroago egin baditu kontratuaren xede diren eginkizun berak. Artikulu honetako a) atalean zehaztuta dago probaldiaren gehieneko iraupena. Langileak probaldirako ezarrita dagoen gehieneko iraupenaz baino denbora laburragoz lan egin badu eginkizun beretan, probaldia ezar daiteke, gehieneko iraupena betetzeko falta den epeaz.

## **22. artikulua.- Antzinasun-osagarrirako egunak zenbatzea.**

Hitzarmen hau EHAAn argitaratzen denetik aurrerako ondoreekin, langileak ikastetxean lan egindako denbora guztia zenbatuko da antzinasunaren osagarrirako (hirurtekoak), kontratuak aldi baterakoak nahiz mugagabeak izan, kontratuen artean igaro den denbora gorabehera.

Aldeek hitz ematen dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari helaraziko diotela antzinasun horren zenbaketa aitortua izan behar dela ordainketa eskuordetuaren ondoretarako, gaur egun dagoen jurisprudentziari jarraikiz. Hala, horren arabera ordainduko da antzinasunaren osagarria (hirurtekoak).

## **23. artikulua.- Lanpostu hutsak, lanpostu berriak eta kategoriaz igotzea.**

Lanpostu hutsa esaten zaio langile baten lan-harremana azkentzearen ondorioz langileak lantokia uzten duenean hutsik geratzen den lanpostuari.

Ikastetxeetan sortzen diren lanpostu berriak edo lanpostu hutsak betetzeko, hauetatik eratorritako irizpideak hartuko dira kontuan: itundutako ikasgelen murrizketak eragindako ikastetxeei buruzko araudia eta hezkuntza itunei buruzko araudia, indarrean dauden bitartean.

### **1. Irakasle-lanpostu hutsak.**

Irakasleen goi-mailetan sortutako lanpostu hutsak edozein taldetako beheragoko kategorietako langileek beteko dituzte lehentasunez, betiere, kontuan hartuta langileen ahalmena, titulazioa, gaitasuna eta ikastetxean duten antzinasuna.

Titularrak uste badu ez dagoela arestian adierazitako baldintza horiek betetzen dituen langilerik, lanpostu hutsak unean-unean indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera beteko dira.

Itundutako mailetan, indarreko legediaren arabera beteko dira lanpostu hutsak. Ikastetxeko eskola-kontseiluak lehentasuna emango die gainerako eskakizunak betetzen dituzten ikastetxeko bertako langileei, lanpostu hutsa betetzeko eskabideen artean.

Elebidun izatea ere izan daiteke lanpostu hutsak betetzeko lehentasun-irizpidea, beren euskalduntze-planean hala jasoa duten ikastetxeetan.

Haur Hezkuntzako 2. Zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakasle titular finkoek lehentasuna izango dute maila horietan gertatzen diren lanpostu hutsak betetzeko, baldin eta horietan eskatzen diren kualifikazioak badituzte eta bost urte edo gehiagoko antzinasuna badute lanpostu horretan, betiere, lan-kontratuan zehaztu ez bada kontratazioaren espezialitatea.

### **2. Administrazio-lanpostu hutsak.**

Administrazio-langileen taldean gertatzen diren lanpostu hutsak betetzeko honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Administratzaile, bulego-buru eta intendente, idazkaritza eta administrazioko buru eta telefonista lanpostuak titularrak izendatuko ditu, askatasunez.
- b) Kategorian bost urtez lan egin duten laguntzaileak ofizial kategoriara igoko dira, eta lanpostu hutsik ez badago, laguntzaile lanean jarraituko dute, ofizialen ordainsariarekin.

### **3. Zerbitzu orokorretako langileen lanpostu hutsak.**

Langile horien artean gertatzen diren lanpostu hutsak atal bereko hurrengo beheragoko kategoriako langileek beteko dituzte, betiere, betetzekoa den lanposturako behar diren ahalmena eta gaitasuna badute.

4. Kontratazio berriak edo lanpostu hutsak sortzea.

Kontratazio berriak edo lanpostu hutsak sortuz gero, eta plantillako langile finkoek bete ezin izanez gero, lehentasuna izango dute aldi baterako kontratua, lanaldi partzialeko kontratua edo antzekoa duten langileek eta bitarteko langile-kontratua dutenek, betiere, egokiak badira ikastetxearen titularraren iritziz, eta probaldiaren denbora bete badute.

**24. artikulua.- Langileek borondatez lanpostua uztea.**

- a) Ikastetxeko lanpostua borondatez utzi nahi duten langileek ikastetxearen titularrari jakinarazi beharko diote, idatziz, aurreabisuko epe hauetan:
- Irakasleek eta irakasle ez diren langile tituludunek: hilabete.
  - Gainerako langileek: 15 egun.

- b) Langileak aurreabisua epe horietan egiten ez badu, ikastetxearen titularrak eskubidea izango du aurreabisua egin ez den atzerapen-egun bakoitzeko bi eguneko soldataren zenbatekoa likidaziotik kentzeko, betiere, soldata kendutako egunen kopuruak aurreabisuari dagokion egunena gainditu gabe.

Langilea funtzionario-kategoriara igotzen deneko kasuak salbuespena dira. Egoera horretan dauden langileek gaindituen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo zazpi egunetan egin behar diote aurreabisua ikastetxearen titularrari.

- c) Ikastetxeak garaiz eta behar den moduan jasotzen badu aurreabisua, dagokion likidazioa ordaindu beharko dio langileari lan-harremana amaitzean. Ikastetxeak betebeharrak ez badu, langileak eskubidea izango du 2 eguneko soldataren kalte-ordaina jasotzeko likidazioan, hura eman ez den atzerapen-egun bakoitzeko (gehenez, aurreabisuari dagokion egun-kopuruaz).

- d) Langileak lan-harremana bere borondatez amaitu dela eta bere laneko eskubideak bermatu direla aitortzeko dokumentua langileen ordezkarien, enpresa-batzordearen edo sindikatuen esku jarriko du bi laneguneko epean, betiere interesduna horren kontra ez badago.

16

### III. TITULUA

## LANALDIA, OPORRAK, GAIXOTASUNA, BAIMENAK, EGUNERATZE-, HOBEKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE- IKASTAROAK ETA ESZEDENTZIAK

### I. KAPITULUA

#### LANALDIA

**25. artikulua.- Lan-egutegia.**

Ikasturtea hasi aurretik, eta aldeztu aurretik ikastetxeko langileen ordezkariari kontsulta eginda, lan-egutegia egingo da, eta idatziz jasoko da, kontuan hartuta ezarritako lan-jaiak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarraibideak eta hezkuntza-erkidegoaren interesak eta ikastetxearen antolaketa. Lan Sailak ezarritako lan-jaiak aldatuz gero, aldaketa ofiziala egin ondoren, egindako lan-egutegia egokituko da horretara.

Irakaskuntza arautuen kasuan, eskola-kontseiluak lehenago onartutako eskola-egutegia errespetatu behar du lan-egutegiak, eta eskolak hasi eta amaitzeko egunek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren xedapenak bete beharko dituzte.

Ikastetxearen titularraren eta langileen ordezkarien artean adostuta, egutegia egitean, uztailari dagozkion orduak banatu daitezke ikasturtean zehar; ordu horiek ez dira aparteko ordutzat joko, betiere, 32. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa betetzen bada.

Egutegian aurrez aurrekoak ez diren ordu osagarriak jaso beharko dira, 26. artikuluan agertzen direnak.

Hezkuntza-laguntzako espezialisten lan-egutegia irailaren 1etik ekainaren 30era bitartean zehaztuko da.



**OHARRAK**

--



## **26. artikulua.- Urteko lanaldia**

Hitzarmen honetan ezarritako ordainsariak urteko ordu-kopuru hauei dagozkie, kategoria hauen arabera:

### **1. taldea. Irakasleak:**

1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileak.

2019-2020 ikasturtetik aurrera (aurreko ikasturteetarako urteko lanaldia 2008-2009 hitzarmenean ezarritakoa izango da):

- Maisu/maistra: 1307 ordu
- HTE: 1575 ordu
- Laguntzailea: 1575 ordu

Horrek esan nahi du lanaldia urtean 45 orduz murriztuko dela 2008-2009 hitzarmenean aurreikusitako urteko lanaldiaren aldean. Murrizketa hori egunetan egingo da.

Salbuespen kasuetan, 2019-2020 ikasturterako, murriztu beharreko orduen kopurua 30 ordukoa izango da. Ordu horiek 2020ko urtarriletik ekainera bitartean aplikatuko dira, eta lanaldiaren murrizketa salbuespen kasuetan egin ahal izango da, soili-soilik ikasturte horretarako, ordu edo egun osotan.

2.- Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa eta Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Bereziko irakasle titularra, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloak, Goi Mailako Gradua eta Zereginak Ikasteko Gelak).

Urteko lanaldia 1.252 ordukoa izango da. Ordu horietatik 28. artikuluan maila desberdinetarako ezartzen den asteko proportzioaren arabera izango dira osagarriak.

2019-2020 ikasturtetik aurrera, urteko 1.252 orduetatik 40 ordu osagarri ezarri dira, aurrez aurrekoak ez direnak, etxean egindako lana aitortzeko.

Salbuespen kasuetan, 2019-2020 ikasturterako, aurrez aurrekoak ez diren ordu osagarriak 27 ordu izango dira, eta 2020ko urtarriletik ekainera bitartean zenbatetsiko dira.

Ikastetxeko zuzendaritzak eskatuta egiten diren prestakuntza-orduak ohiko lanaldia gainditzen badute, urteko ordu osagarrien multzotik konpentsatuko dira.

3.- Hezkuntza-laguntzako espezialistak.

2019-2020 ikasturtetik aurrera urteko lanaldia 1.293 ordukoa izango da (aurreko ikasturteetarako urteko lanaldia 2008-2009 hitzarmenean ezarritakoa izango da).

Horrek esan nahi du lanaldia urtean 97 orduz murriztuko dela 2008-2009 hitzarmenean aurreikusitako urteko lanaldiaren aldean.

Salbuespen kasuetan, 2019-2020 ikasturterako, murriztu beharreko orduak 65 ordu izango dira, eta 2020ko urtarriletik ekainera bitartean aplikatuko dira.

4.- Zuzendari, zuzendariorde, ikasketa-buru edo saileko buru kategoriak dituzten irakasleak, urteko 210 ordu gehiago izango dituzte haien hezkuntza-motari dagozkionez gainera.

5.- Hezkuntza Espezializatuetako eta Helduen Etengabeko Hezkuntzako irakasleak: 1.300 ordu.

## **2. taldea. Irakasle ez diren langileak:**

1.- Irakasle ez diren langile tituludunak: 1390 ordu urtean.

2.- Administrazio eta zerbitzuetako irakaskuntzaz kanpoko gainerako langileak, hau da, Administrazio langileak, laguntza-langileak eta zerbitzu orokorretako langileak:

2019-2020 ikasturteetik aurrera urteko lanaldia 1.555 ordukoa izango da (aurreko ikasturteetarako urteko lanaldia 2008-2009 hitzarmenean ezarritakoa izango da). Horrek esan nahi du lanaldia urtean 30 orduz murriztuko dela 2008-2009 hitzarmenean aurreikusitako urteko lanaldiaren aldean.

Salbuespen kasuetan, 2019-2020 ikasturterako, murriztu beharreko orduak 20 ordu izango dira, eta 2020ko urtarrietik ekainera bitartean aplikatuko dira.

Orduen urteko murrizketa udako operen jarraian egingo da.

Barneko langileek, konpentsazio moduan, urteko lanaldian 40 ordu gehiago egingo dituzte.

### **27. artikulua.- Eskola-orduen eta ordu osagarrien definizioa.**

Irakasleen ordutegian, eskola-orduak eta ordu osagarriak bereiziko dira.

Eskola-jardueratzat hartuko da eskola, 60 minutu baino luzeago ez den aldia, zeinean irakasleak irakaskuntza-eginkizuna gauzatzen baitu azalpenak emanez, taldeko tutoretzak eginez, ahozko zein idatzizko probak eginez edo bere azalpenen osagarri gisa ikasleen ikaste-aldiak kontrolatuz.

DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Haur Hezkuntzako 2. Zikloan eta Lehen Hezkuntzan, Zuzendaritzak programatutako eta Hezkuntza Administrazioak baimendutako 50-60 minutuko saioak eskola-ordutzat jotzen dira, ondorio guztietarako.

Haur Hezkuntzako 2. Zikloan, irakasleak bere ikastaldeari patioko jardueretan edo jolasetan laguntzen dionean, aldi hori eskola-ordutzat jotzen da.

Jarduera osagarritzat jotzen dira ikastetxean egiten diren irakaskuntzarekin lotutako gainerako jarduerak: hala nola eskolak prestatzea, zuzenketak, ebaluazio-bilerak, programazioa, laborategi edo tailerreko lanak prestatzea, banakako tutoretzak, gurasoekiko bilerak, liburutegiko lana, klaustroetara joatea, saileko edo mintegiko bilerak eta antzekoak, baita ikastetxeko ordutegiaren banaketaren ondorioz eskola-orduen artean geratzen zaizkion orduak, bertan geratu behar badira.

Irakasleen ohiko lan-ordutegiaren barruan ikastetxetik kanpo egindako jarduerak ikastetxeak ezarritako proportzioaren arabera joko dira eskola-ordu eta ordu osagarritzat. Ohiko lanaldia gainditzen duten orduei dagokienez, komenigarria da urteko orduen kopuru osoaren barruan ordu-kopuru bat aurreikustea helburu horretarako lan-egutegia antolatzean, hitzarmenean ezarritako gehieneko ordu-kopurua ez gainditzeko.

Atsedendietan, irakasleak titularraren eskura egongo dira, ikasleak behar bezala zaintzeko.

Lan pertsonaleko ordu osagarritzat jotzen dira irakasleak hautaz eta indibidualki egiten dituenak (ez modu kolektiboan edo taldean), bere lanarekin lotutako jardueretan. Ordu horiek ikastetxeak ezarri beharko ditu, asteko ordutegian. Hiru hilean behin berrikusi ahal izango dira.

Aurrez aurrekoak ez diren ordu osagarritzat joko dira hautaz egin diren eta ikastetxetik kanpoko ordu gisa egin eta aitortu diren orduak.

### **28. artikulua.- Asteko lanaldia.**

1. taldea: Irakasleak:

1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileak:

Asteko lanaldia urteko lanaldiaren banaketa irregularrean oinarrituta kalkulatu da; asteko gehieneko lanaldia gehienez 32 ordukoa da maisu-maistrentzat; 38koa HTEntzat, eta 39koa laguntzaileentzat. Egin beharreko eginkizun guztiak (koordinazioa, gurasoei arreta ematea, prestakuntza...) sartuta daude adierazitako asteko lanaldian.



--

2019-2020 ikasturtetik aurrera, eta maisu-maistren eta HTEn kasurako, urtean 125 ordu osagarri gordetzen dira koordinazio eta prestakuntzarako. Salbuespen kasuetan, 2019-2020 ikasturterako, koordinazio eta prestakuntzako ordu osagarriak 84 ordu izango dira, eta 2020ko urtarriletik ekainera bitartean aplikatuko dira.

2.- Haur Hezkuntzako 2. Zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko langileentzat, asteko lanaldia 32 ordukoa izango da, astelehenetik ostiralera: horietatik, 23 izango dira eskola-orduak, eta gainerakoak, osagarriak.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako langileentzat, asteko lanaldia 32 ordukoa izango da, astelehenetik ostiralera: horietatik, 22 izango dira eskola-orduak, eta gainerakoak, osagarriak.

4.- Batxilergoko eta Lanbide Heziketako langileentzat, asteko lanaldia 32 ordukoa izango da: horietatik, 21 edo 22 izango dira eskola-orduak, eta gainerakoak, osagarriak. 21 eskola-orduko lanaldia lanaldi osotzat joko da.

Irakasleekin hala adostuta, denbora-tarte osagarriak hartuko dira aste arruntetan, ebaluazio-saioetarako. Halaber, irakasleekin hala adostuta, urtean bost larunbat erabili ahal izango dira helburu horretarako, gehienez ere.

5.- Irakaskuntza espezializatuak: Hezkuntza Espezializatuetak eta Helduen Etengabeko Hezkuntzako langileen asteko lanaldia 32 ordukoa izango da: horietatik, 26 izango dira eskola-orduak, eta gainerakoak, osagarriak.

Bi maila ezberdinetan jarduten duten irakasleei, beren lanaldi gehiena ematen duen mailari dagokion gehieneko asteko eskola-lanaldia aplikatuko zaie.

2020-01-01etik aurrera, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko, Irakaskuntza Espezializatuetak, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako langileentzat aurrez aurreko 3 ordu osagarri bermatuko dira astero ikastetxean lan pertsonala egiteko. Aurrez aurreko 3 ordu osagarri horiek saio oso batekoak izango dira (50, 55 edo 60 minutuko saioak). Saioak 50 minututik beherakoak badira, saio-kopurua 4koa izango da. Edonola ere, ezingo dira 45 minututik beherako saioak izan.

#### 6.- Hezkuntza-laguntzako espezialistak:

- Hezkuntza-laguntzako espezialistentzat, asteko lanaldia 35 ordukoa izango da, astelehenetik ostiralera. Ordu horietatik, 2020-01-01etik aurrera, ordu eta erdi gehiago hartu ahal izango dute lanaldi osoko langileek eta ordu bete gehiago lanaldi partzialeko langileek.

- Ordu osagarriak saio osoetan esleituko dira, 50, 55 eta 60 minutuko saioen kasuan. Saioak 50 minututik beherakoak badira, 2 saio oso ezarriko dira lanaldi osoan kontratatutako hezkuntza-laguntzako espezialistentzat (ezin izango dira izan 45 minutu baino gutxiago), eta ordu bat, zatitu ezinekoa, lanaldi partzialeko kontratuen kasuan.

- Edonola ere, ikasleentzako arreta zuzenaren dekretuan ezarritako denbora errespetatu behar da, eta denbora osagarria lanaldiaren zabalkundetzat joko da, ikasleentzako arreta zuzen hori bermatzeko.

- Eusko Jaurlaritzaren dekretuan esleitutako orduen eta lanaldiaren araberrako urteko orduen artean urteko lanaldia osatzeko geratzen diren orduak ordu osagarrietan banatuko dira, ikaslerik ez dagoen egunetan, betiere egun osoetan (iraila, ekaina eta uztaila), bai eta eskolako irteeretan, koordinazio-lanetan eta prestakuntzan ere, urteko lanaldia osatu arte.

2. taldea: Irakasle ez diren langileak:

1.- Irakasle ez diren langile tituludunak: goi-mailako tituludunak eta erdi-mailako tituludunak: asteko 34 ordu, astelehenetik ostiralera banatuta.

2.- Irakasle ez diren beste langile tituludun batzuk: asteko 35 ordu, astelehenetik ostiralera banatuta.

3.- Administrazio eta zerbitzuetako langileak: Asteko 40 ordu, astelehenetik ostiralera banatuta. Asteko lanaldia urteko lanaldiko banaketa irregularrean oinarrituta kalkulatu da; asteko gehieneko lanaldia 40 ordukoa da.

Administrazio eta zerbitzuetako langileen kasuan, lanorduak astean zehar banatuko dira, ikastetxearen beharren arabera; betiere, eguneko lanaldia 8 orduetik gorakoa izan gabe. Laneko arrazoiak tarteko larunbat eta igandeetako edo jai- eta opor-egunetako atsedena ezin izaten bada egun horietan baliatu, beste egun batzuetan baliatuko dira atsedeen horiek, proportzio berean. Betiere, lanaldi bat amaitzen denetik eta hurrengo hasten den arte, 12 orduko tartea utzi behar da, gutxienez.

**29. artikulua.- Beste zenbait kategoria funtzionalen asteko lanaldia.**

Zuzendari, zuzendariorde, ikasketa-buru edo saileko buru kategoriak dituzten irakasleen kasuan, 210 ordu gehiago izango dituzte (26. artikuluan aurreikusitakoaren arabera) haien hezkuntza-motaren lanaldiari dagozkionez gainera, ikastetxean berariazko eginkizun horiek bete ditzaten. Zuzendari, zuzendariorde, ikasketa-buru eta saileko buru eginkizunetan hastea borondatezkoa izango da langileentzat.

Koordinatzaile eta tutore eginkizunak haiek betetzen dituzten irakasleei dagozkien hezkuntza-motarako ezarritako ordutegiaren barruan egin ahal izango dira.

Ikastetxearen titularraren eskariz irakasle bati esleitzen bazaio mintegiko buru edo zikloko edo arloko koordinatzaile eginkizunak betetzea, eta eginkizun horiek ekartzen badute haren ohiko lanaldiaz gaineko dedikazioa, saileko buruei aplikatzen zaizkien irizpide berekin balioetsiko da.

Betiere, aldeztatik jakinaraziko zaio langileari eginkizun horretako izendatua dela.

**30. artikulua.- Beste maila batean lan egitea. Ordainsariak.**

Hezkuntza-maila ezberdinetan lan egiten duten langileen ordainsariak maila bakoitzean lan egiten duen ordu-kopuruaren proportzioan ezarriko dira.

**31. artikulua.- Zentroan bizi direnentzako lanaldia.**

Hitzarmen honetan ezarritako lanaldiaren araubidea ez da atezaintza eta antzeko zaintza-zerbitzuetan erabiliko, ikastetxean bertan bizi badira behintzat.

**32. artikulua.- Aparteko orduak.**

Aparteko ordutzat joko dira hitzarmen kolektibo honetan ezarritako lanaldi arrunta gainditzen duten horiek. Aparteko orduetan lan egiteko ekimena ikastetxearen titularrari dagokio, eta langileek askatasunez erabaki dezakete onartu ala ez, unean-uneko indarreko legeriaren arabera.

Asteko legezko gehieneko lanaldia gainditzen duten, baina urteko lanaldia gainditzen ez duten lanorduak, ez dira apartekotzat joko, betiere, eguneko bederatzi orduetik gorakoak ez badira, eta lanaldi baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren artean 12 ordu edo gehiago igarotzen badira.

Aparteko orduak atsedeen-ordu kopuru berarekin konpentsatuko dira.

**33. artikulua.- Gaueko lana.**

22:00etatik 06:00etara bitartean egindako orduak gauekotzat joko dira. Ordu horien ordainsaria hitzarmenean ezarritakoaren % 25 gehiago izango da, salbu eta soldata ezartzean kontuan hartua bada lana gauekoa izango dela berez dituen ezaugarrien ondorioz.

20

### **34. artikulua.- Jantokia zaintzea**

Edozein lanaldi dutela ere, bazkarietan edo haren ondorioz sortutako atsedenaldira direla-eta ikasleak zaintzea esleitu zaien eta onartu duten irakasleek (Hitzarmeneko 12. artikuluko 1. taldean sartzen direnek) mantenurako eskubidea izango dute jarduera horretan emandako denboraz.

Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileentzat jantokia doakoa izango da beti, baldin eta beren lanorduak jantokiko ordutegietan sartzen badira.

## **II. KAPITULUA**

### **OPORRAK**

### **35. artikulua.- Oporrak.**

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiak eskubidea izango dute hilabete jarraitu bateko opor ordainduak izateko udan, zerbitzu aktiboko urte bakoitzean.

Irakasleei dagokienez, ikastetxearen titularraren eta langileen ordezkarien artean, bi aukera hauetako bat adostuko dute, ikastetxearen antolaketaren arabera:

- Oporraldiari lotutako beste 15 atsedeen-egun jarraitu izatea irakasle guztiak.
- Oporraldiari lotutako beste atsedeen-hilabete jarraitu izatea irakasleen % 50ek.

Ikastetxeko titularraren eta langileen arteko akordio espresuaren kasuan baino ezin izango da data horietatik kanpo baliatu atsedenaldira.

Irakasle ez diren langileek eskubidea izango dute oporraldiarekin lotutako beste 15 atsedeen-egun jarraitu hartzeko, eta beste lau lanegun urtean; horiek ikastetxearen titularraren eta interesdunaren artean adostuta zehaztuko dituzte.

### **36. artikulua.- Gabonak eta Aste Santua.**

Irakasleek eskubidea izango dute Aste Santuan eta Gabonetan eskola-egutegi ofizialean ikasleentzat ezartzen den oporraldi berbera izateko.

Hala ere, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileek eskubidea izango dute laneguntzat joko diren 10 eguneko oporraldira izateko, Gabonetan, Aste Santuan eta udan banatuta. 2020-01-01etik aurrera, 8 egun naturaleko oporraldira hartuko da Aste Santuan eta 9 egun naturalekoa Gabonetan. Azken egun horiek, salbuespen kasuetan, 2019ko Gabonetatik aurrera hartuko dira.

Irakasle ez diren langileek eskubidea izango dute 7 egun naturaleko oporraldira izateko Aste Santuan, eta 9 egun naturalekoa, Gabonetan; era jarraituan, bata zein bestea. Ikastetxeek, dena den, txandak antola ditzakete langile horien artean, beren zerbitzuak mantentzeko.

### **37. artikulua.- Eskola-oporretako lanaldi jarraitua.**

Administrazioko eta zerbitzu orokorretako langileek, eskola-oporretako eskola-egunak ez diren egunetan, eguneko 6 orduko lanaldi jarraitua egingo dute, eta txandak antolatu ahal izango dira, zerbitzuei erantzuteko.

Uztailean eta abuztuan, langile horiek 48 orduko atsedenaldira jarraitua izango dute astean.

### **38. artikulua.- Lanaldi jarraitua barnetegietan.**

Aurreko artikuluan jarritakoa ikastetxe guztietan aplikatuko da; ez, ordea, barnetegi edo antzekoetan, lanaldia jarraian egitean behar den moduko zerbitzua bermatzen ez bada. Zerbitzu guztiak beteta gera daitezzen, txandak jarri ahal izango dira.

### **39. artikulua.- Lana uzten duten langileen oporrak.**

Urtean barrena lanari uzten dion langileak dagokion heineko oporraldira hartzeko eskubidea edukiko du, urte hartan lanean egindako denboraren arabera.

#### **40. artikulua.- Irakasleen uztailleko eta abuztuko lanaldia.**

Uztailen edo abuztuan, Haur Hezkuntzako 2. Zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, DBHko, Batxilergoko, eta Lanbide Heziketako irakasleek gehienez 21 orduko lanaldia izango dute astean.

### **III. KAPITULUA**

#### **GAIXOTASUNA, ORDEZKAPENAK, ETENALDIAK ETA BAIMENAK**

#### **41. artikulua.- Aldi baterako ezintasuna.**

Lanerako ezintasuneko egoeran dauden langileek, lehenengo 3 hilabeteetan, beren soldata-ordainsariaren % 100 betetzeko behar den osagarria jasoko dute, aparteko pagei eta baja-aldian gertatutako soldata-igoerei dagokien zatia barne. Ezintasunak iraunez gero, antzintasuneko hirurteko bakoitzeko beste hilabete batez ordainduko zaie osagarria, baldintza beretan.

#### **42. artikulua.- Ordezkapenak.**

2020-01-01etik aurrera, irakasleek (Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileek barne) eta Hezkuntza-laguntzako espezialistek aldi baterako ezintasunen zioz baja hartzen badute:

- ezusteko bajen ondoriozko ordezkapenak bajaren hirugarren egunetik aurrera egingo dira.

- hiru egunetik gorako bajak aurreikusten badira, lehen egunetik aurrera ordezkatuko dira. Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloaren kasuak izango dira salbuespen, aurreikusitako baja guztietan lehen egunetik aurrera egingo baitira ordezkapenak.

#### **43. artikulua.- Lan-kontratua etetea lanpostua erreserbatuta.**

Lan-kontratua etetea kasuak unean uneko lan-arloko legeria orokorrean ezarritakoaren arabera eta artikulua honen bukaeran jasotako berezitasunekin arautuko dira.

Informazio gisa, Langileen Estatutuaren 48. artikulua gaur egungo idazketak hau ezartzen du:

«Langileen Estatutuaren 48. artikulua:

1. *Etetea eragin duten legezko arrazoiak amaitzen direnean, gordetako lanpostura bihurtzeko eskubidea izango du langileak, 45.1 artikuluan aipatutako kasu guztietan, a) eta b) letretan adierazitakoa salbuespen dela, itundutakoa bete beharko baita halakoetan.*

2. *Langilearen aldi baterako ezintasuneko kasuetan, bai ohiko lanerako ezintasun iraunkor osoa aitortu diotelako, bai edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutu edo baliaezintasun handia aitortu diotelako, langileari ezintasun iraunkorra aitortuta aldi baterako ezgaitasun-egoera azkentzen zaionean, lan-harremanak etenda jarraituko du, eta bi urtez gordeko zaio lanpostua, ezintasun iraunkorra aitortzen duen erabakiaren egunetik kontatzen hasita, baldin eta, kalifikazioa egin duen organoaren iritziz, langilearen ezgaitasun-egoera berriro aztertu beharko bada, beren egoera hobetzeagatik agian bere lanpostura bihurtzeko moduan izango delako.*

3. *Ordezkaritzako kargu publikoren bat edo sindikatuetako funtzioak egiteko denboran, bai probintzia mailakoak zein goragokoak, horiek guztiok betetzeko denboran, bada, kontratua etenda egon den kasuetan, hogeita hamar eguneko epean itzuli beharko da lanera langilea, zerbitzua, kargua edo funtzioa amaitzen denetik kontatzen hasita.*

4. *Jaiotzak, zeinak erditzea eta hamabi hilabete baino gutxiagoko haurraren zaintza barne hartzen baititu, ama biologikoaren lan-kontratua etengo du 16 astez; aste horietatik, nahitaezkoak izango dira erditu ondoko sei asteak, etenik gabekoak, zeinak lanaldi osoan hartu beharko baitira, amaren osasunaren babesa ziurtatzeko.*

*Jaiotzak ama biologikoa ez den gurasoaren lan-kontratua etengo du 16 astez; aste horietatik, nahitaezkoak izango dira erditu ondoko sei asteak, etenik gabekoak, zeinak lanaldi osoan hartu beharko baitira, Kode Zibilaren 68. artikuluan aurreikusitako zaintza-betebeharrak betetzeko.*

Umea behar baino lehen jaio bada edo beste edozein arrazoirengatik jaioberriak erditzearen ondoren ospitaleratuta jarraitu behar badu, etenaldia ospitale-altaren egunetik aurrera has daiteke zenbatzen, ama biologikoak edo beste gurasoak hala eskatuz gero. Zenbaketa horretatik kanpo geratzen dira erditzearen ondorengo sei asteak, ama biologikoaren kontratua nahitaez eteteak.

Haurra garaiz aurretik eta pisu gutxirekin jaiotzen bada edo, arrazoi klinikoren bat dela-eta, jaioberriak zazpi egunetik gora ospitalean egon behar badu, lan-kontratua etetea baimen-aldia luzatu egingo da jaioberria ospitalean dagoen bitartean, hamahiru astez gehienez ere, eta erregelamenduz ezarritako eran.

Semea edo alaba hiltzen bada, etenaldia ez da murriztuko, salbu eta, nahitaezko atsedendaldiko sei asteak amaitu ondoren, lanpostura itzultzeko eskatzen bada.

Adingabea zaintzeko asmoz guraso bakoitzak eginiko kontratu-etenaldia, erditzearen osteko lehen sei asteak igarotakoan, beraiek nahi bezala banatu ahal izango da, astekako aldietan (metatuta edo etenaldiak hartu daiteke), eta erditzearen ondorengo nahitaezko etenaldia amaitzen denetik aurrera hartu ahal da, semeak edo alabak hamabi hilabete egin arte. Hala ere, ama biologikoak erditzea aurreikusitako eguna baino lau aste lehenago ere har dezake baimena. Astebeteko aldi bakoitza hartzeko edo, hala badagokio, asteak metatuta hartzeko, horren berri eman behar zaio enpresari, gutxienez hamabost egun lehenago.

Langilearen eskubide hori indibiduala da, eta, beraz, ezin zaio beste gurasoari eskualdatu.

Erditu osteko lehenengo sei asteak iragan ondoren, lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean baliatu ahal izango da lan-kontratua etetea, aldez aurretik enpresa eta langilea ados jarrita, eta erregelamenduz ezarritakoari jarraituz.

Langileak enpresari gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko dio eskubide hori baliatu nahi duela, hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzekin, hala badagokio. Eskubide hori baliatzen duten bi gurasoek enpresa berean lan egiten badute, enpresako zuzendaritzak eskubidea batera hartzeko mugak jar ditzake, horretarako arrazoi sendoak eta objektiboak badaude. Kasu horretan, idatziz eman beharko die arrazoi horien berri.

5. Adopzio, adopzioarako zaintza eta harreraren kasuetan, etenaldia hamasei astekoa izango da adoptatzaile, zaintzaile edo harreragile bakoitzarentzat, 45.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Sei aste lanaldi osoan hartu behar dira, nahitaez eta etenik gabe, adopzioaren ebazpen judiziala eman edo adopzioarako zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa eman eta berehala.

Gainerako hamar asteak asteka har daitezke, metatuta edo etenak eginda, adopzioaren ebazpen judizialaren edo adopzioarako zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboaren osteko hamabi hilabeteen barruan. Haur berak ez du langile beraren etenaldi bat baino gehiago izateko eskubiderik emango. Astebeteko aldi bakoitza hartzeko edo, hala badagokio, asteak metatuta hartzeko, horren berri eman behar zaio enpresari, gutxienez hamabost egun lehenago. Hamar asteko etenaldi hori lanaldi osoko erregimenean edo lanaldi partzialeko erregimenean hartu ahal izango da, aldez aurretik enpresa eta eragindako langileak ados jarrita, eta erregelamenduz ezarritakoari jarraituz.

Nazioarteko adopzioetan, gurasoek adoptatuaren jatorrizko herrialdera joan behar dutenean aldez aurretik, adopzioaren ebazpena eman baino lau aste lehenago has daiteke atal honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako etenaldia.

Langile bakoitzaren eskubide indibiduala da hori, eta, beraz, ezin zaio eskualdatu beste adoptatzaileari, adopzioarako zaintzaileari edo harreragileari.

Langileak enpresari gutxienez hamabost egun lehenago jakinarazi beharko dio eskubide hori baliatu nahi duela, hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzekin, hala badagokio. Eskubide hori baliatzen duten bi adoptatzaile, zaintzaile edo harreragileek enpresa berean lan egiten badute, enpresak mugak jarri ahal izango ditu borondatezko hamar asteak batera baliatzeko, horretarako arrazoi sendoak eta objektiboak badaude. Kasu horretan, idatziz eman beharko die arrazoi horien berri.

6. Jaiotza, adopzio, adopzioarako zaintza edo harrerako semeak edo alabak desgaitasunen bat badu, 4. eta 5. zenbakietan aipatzen den kontratu-etenaldia beste bi astez luzatuko da, guraso bakoitzarentzat bat.

Luzapen bera aplikatuko da jaiotza, adopzio, adopziorako zaintza edo harrera anizkoitzetan, lehenengoa ez beste seme edo alaba bakoitzeko.

7. Haurdunaldi bitarteko arriskua edo edoskitzaro naturalak iraun bitarteko arriskua dagoenean, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak (azaroaren 8ko 31/1995 Legeak) 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, erditzearen ondoriozko kontratu-etetea hastean edo bularra hartzen duen umeak bederatzir hilabete betetzean amaituko da kontratuaren etetea, hurrenez hurren, edo, bi kasu horietan, langilea bere lanpostuan edo bere egoerarekin bat datorren beste lanpostu batean berriro lanean hasteko ezintasuna desagertzean.

8. Langileen Estatutuaren 45.1.n) artikuluan jasotako kasuan, etenaldiak hasieran sei hilabetetik gorakoa ez den iraupena izango du, salbu eta babes judizialaren jardunetatik ondorioztatzen bada kontratuak etenda jarraitu behar duela, biktima babesteko eskubidea eraginkorra izan dadin. Kasu horretan, epaileak kontratu-etetea hiru hilabeteko aldietan luzatu ahal izango du, hemezortzi hilabeteko mugarekin.

9. Kontratua eten bitartean langileek izan zitzaketan lan-baldintzen hobekuntza guztiak izango dituzte, betiere 4-8 bitarteko zenbakietan aipatu diren kasuetan.»

Langileen Estatutuaren 48. artikuluko 4., 5. eta 6. zenbakiak gradualki joango dira aplikatzen Langileen Estatutuaren hamahirugarren xedapen iragankorrean jasotako arauei jarraituz; hona hemen haren testua, informazio gisa:

**«Hamahirugarren xedapen iragankorra. 48. artikulua pixkanaka aplikatzea, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera (6/2019 Errege Lege Dekretua, enplegu eta okupazioaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa).**

1. Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera, 48. artikuluko 4., 5. eta 6. zenbakiak mailaka aplikatuko dira (6/2019 Errege Lege Dekretua, enplegu eta okupazioaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa), erregela hauen arabera:

a) Jaiotza kasuan, ama biologikoak osorik baliatuko ditu martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuan araututako etenaldiak, lege dekretua indarrean jartzen denetik.

b) Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera, jaiotza kasuan, beste gurasoak zortzi asteko etenaldi osoa izango du, eta lehenengo bi asteak etenik gabe hartu beharko ditu, erditzea gertatu eta jarraian.

Ama biologikoak lau astera arteko aldia laga diezaioke beste gurasoari, nahitaezkoa ez duen etenalditik. Beste gurasoak 48.4. artikuluan xedatutakoaren arabera baliatu behar du bai aldi hori, bai gainerako sei asteak.

c) Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik aurrera, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera kasuetan, guraso bakoitzak sei asteko etenaldia izango du, lanaldi osokoak, nahitaez eta etenik gabe, adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala eman edo adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa eman eta jarraian. Nahitaez hartu beharreko sei asteek gainera, gurasoek, nahi izanez gero, hamabi aste har ditzakete, etenik gabe, adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren edo adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboaren ondorengo hamabi hilabeteen barruan, 48.5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Gurasoetako batek gehienez hamar aste har ditzake borondatezko hamabi aste horietatik, eta hamabi aste horietatik geratzen dena beste gurasoaren esku geratuko da. Eskubide hori baliatzen duten bi gurasoek enpresa bererako lan egiten badute, enpresak borondatezko hamabi aste horiek aldi berean baliatzeko aukera muga dezake, arrazoi funtsatuak eta objektiboak badaude, idatziz behar bezala arrazoituta.

d) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, jaiotza kasuan, beste gurasoak hamabi asteko etenaldi osoa izango du, eta lehenengo laurak etenik gabe hartu beharko ditu, erditzea gertatu eta jarraian. Ama biologikoak bi astera arteko aldia laga diezaioke beste gurasoari, nahitaezkoa ez duen etenalditik. Beste gurasoak 48.4. artikuluan xedatutakoaren arabera baliatu behar du bai aldi hori, bai gainerako zortzi asteak.



e) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera kasuetan, guraso bakoitzak sei asteko etenaldia izango du, lanaldi osoan, nahitaez eta etenik gabe, adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala eman edo adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboa eman eta jarraian. Nahitaez hartu beharreko sei astez gainera, gurasoek, nahi izanez gero, hamasei aste har ditzakete guztira: etenik gabe hartu beharko dituzte, adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren edo adopzio-helburuko zaintzari edo harrerari buruzko erabaki administratiboaren ondorengo hamabi hilabeteen barruan, 48.5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Gurasoetako batek gehienez hamar aste har ditzake borondatezko hamasei aste horietatik, eta hamasei aste horietatik geratzen dena beste gurasoaren esku geratuko da. Eskubide hori baliatzen duten bi gurasoek enpresa berarentzat lan egiten badute, enpresak borondatezko hamasei aste horiek aldi berean hartzeko aukera mugatu dezake, arrazoi funtsatuak eta objektiboak badaude, idatziz behar bezala arrazoituta.

f) 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, guraso bakoitzak lan-kontratuaren etenaldi bera izango du, horietako bakoitzarentzat sei asteko nahitaezko baimena barne, eta martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuan xedatutako erregulazio berria osorik aplikatuko da.

2. Harik eta bi gurasoen etenaldia parekatu arte, eta mailakako aplikazioaren aldi, berezitasun hauekin aplikatuko da sistema berria:

a) Ama biologikoa hiltzen bada –lanean ari zen ala ez kontuan hartu gabe–, beste gurasoak 48.4. artikulua arabera ama biologikoarentzat aurreikusitako 16 asteko etenaldi osorako eskubidea izango du.

b) Jaiotza kasuan, beste gurasoak hasieran ama biologikoak lagatuko etenaldia baliatzen jarrai dezake, nahiz eta ama aldi baterako ezintasun-egoeran egon lanera itzultzeko aurreikusita duen unean.

c) Baldin eta gurasoetako batek, bere jarduera profesionala erregulatzen duten arauak direla-eta, ez badu eskubiderik prestazioak jasotzeko eskubidearekin jarduera profesionala eteteko, beste gurasoak bere lan-kontratua 16 astez eteteko eskubidea izango du, eta ez zaio aplikatuko erregimen iragankorraren inolako mugarik.

d) Adopzio, adopzio-helburuko zaintza eta harrera kasuetan, 45.1.d) artikuluekin bat etorritik, bi gurasoek lan egiten badute, interesdunek egindako aukeraren arabera banatuko da etenaldia, zeina aldi berean edo elkarren segidan baliatu baitezakete, aldi berean baliatzeari buruz aldi iragankorreko urte bakoitzerako ezarrita dauden mugen barruan. Atal horietan aipatzen diren aldiak lanaldi osoan edo lanaldi partzialan baliatu daitezke, enpresaburuek eta eraginpeko langileek alde aurretik adostuta, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.»

25

Langileen Estatutuaren 48. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan jasotako lan-kontratuaren etenaldia, gurasoetako batentzako baimen ordainduko astebetetz luzatuko da, hitzarmen honetako hobekuntza gisa; baimena lanaldi osoan baliatu beharko da, kontratu-etenaldia amaitu eta berehala.

#### **44. artikulua.- Ordaindutako baimenak.**

Lanetik joateko baimena har dezake langileak, lansaria jasotzeko eskubidea duela, alde aurretik jakinarazten badu eta justifikatzen badu, arrazoi hauetako bat eta denbora jakin honetarako:

- a) Langilea ezkontzen bada: hamabost egun natural.
- b) Odol- nahiz ezkontza- nahiz bizikidetzahaidetasuneko bigarren mailarainoko senideren baten heriotzaren, istripuaren, gaixotasun larriaren, ospitaleratzearen edo ospitaleratu gabe etxean atseden hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoaren kasuetan: 3 egun gehienez ere, gertaera jazo aurreko edo ondorengo 24 orduetatik aurrera, aldeek bestela adostu ezean. Bizikidetzaren kasuan, horren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren bat hilez gero: bost egun. Arrazoi horiek direla eta, langileak lurralde historikotik kanpo joan behar badu, epea bi egunez luzatuko da.
- c) Medikuko-kontsultetara joateko lizentziak. Kontsulta-ordutegia eta lan-ordutegia aldi berean badira, lizentzia gutxienezko ezinbesteko denborarako izango da. Betiere, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

- d) Gaixotasunen bat dela eta, lehen mailako senideei medikuarenera laguntzeko: urteko 15 ordu, gehienez. Betiere, egiaztagiria aurkeztu beharko da.
- e) Haurdun dauden langileek lanera ez etortzeko baimena izango dute jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko ikastaroak egitera joateko behar den denboraz; aldeztuak jakinarazi beharko diote enpresaburuari, eta justifikatu behar dute lanaldiaren barnean egin behar dela.
- f) Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: egun bat.
- g) Odol-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senideren baten ezkontzagatik: egun bat.
- h) Ezinbesteko betebeharrak publiko eta pertsonaletarako baimena. Betebeharrak horiek betetzeko behar den beste denborarako lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, betiere, betebeharrak hori lan-orduetatik kanpo ezin bada egin.
- i) Eginkizun sindikalak edo langileen ordezkari-taldeen baten betebeharrak, legearen eta hitzarmen honetan ezarritako baldintzen arabera.
- j) 2020-01-01etik aurrera, Administrazio eta Zerbitzuetako langileek eta Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileek (irakaslea, HTE eta laguntzaileak) 2 egun edukiko dituzte urtean libre hartzeko, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatu eta baimena lortu ondoren. Urtebetetik behar den iraupena edo indarraldia duten kontratuetan, libre hartzeko 2 egun horiek kontratuaren iraupenaren edo indarraldiaren proportzioan aplikatuko dira. Hala badagokio, orduen araberrako hainbanaketa egingo da.

**45. artikulua.- Ordaindu gabeko baimenak.**

Langile guztiek urtean gehienez ere soldatarik gabeko 15 eguneko baimena eskatu ahal izango dute, eta eman egin beharko zaie, baldin eta gutxienez 5 egun lehenago aurreabisua ematen badute, eta langileen % 5 baino gehiago ez bada baimen-mota hori baliatzen ari.

**46. artikulua.- Bularra ematea, lanaldia murriztea eta egokitzea.**

Lanaldia murriztearen eta egokitzaren kasuak unean uneko lan-legeria orokorrak ezarritakoari jarraituz arautuko dira, hurrengo paragrafoan jasotako espezialitatearekin.

Edoskitzearen ziozko baimena (Langileen Estatutuaren 37.4. artikuluan jasotakoa) erabiltzen duen gurasoak, baimen horren ordeztu bi asteko lizentzia ordaindua hartu ahal izango du. Denbora hori Langileen Estatutuaren 48. artikuluko 4. eta 5. zenbakietan ezarritako etenaldiaren jarraian hartu beharko da, edo, hala badagokio, Hitzarmeneko 43. artikuluan azken paragrafoan ezarritako baimen ordainduko aste osagarriaren ondoren.

Informazio gisa, hona hemen Langileen Estatutuaren 37. artikuluko 4.etik 7.era bitarteko zenbakien eta 34.8. artikuluan gaur egungo idazketa:

*«Langileen Estatutuaren 37. artikulua:*

.....

*4. Jaiotza, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera kasuetan, 45.1.d) artikuluekin bat etorriz, langileek lana ordubetez uzteko eskubidea izango dute, ordu hori bi zatitan bana dezaketela, bularreko haurra zaintzeko, harik eta haurrak bederatzi hilabete bete arte. Baimenaren iraupena proportzionalki handituko da jaiotza, adopzio, adopzio-helburuko zaintza edo harrera anizkoitzen kasuan.*

*Eskubide hori baliatzen duenak, nahi izanez gero, ordu erdiko lanaldi-murrizketarekin ordeztu dezake eskubide hori, helburu berarekin, edo lanaldi osoetan metatu, negoziazio kolektiboan edo, hala badagokio, enpresarekin adostutako akordioan ezarritakoaren arabera, betiere negoziazio kolektiboan ezarritakoa betez.*

*Atal honetan jasotako lanaldi-murrizketa langileen eskubide indibiduala da, eta, beraz, ezin zaio beste guraso, adoptatzaile, zaintzaile edo harreragileari eskualdatu. Hala ere, enpresa bereko bi langilek subjektu kausatzaile beragatik baliatzen badute eskubide hori, enpresaburuak mugatu egin dezake langileok eskubide hori aldi berean baliatzea, justifikatutako arrazoiak baldin badaude, enpresaren funtzionamenduan oinarrituta; idatziz eman beharko du horren berri.*

*Bi gurasoek, adoptatzaileek, zaintzaileek edo harreragileek iraupen eta erregimen berean baliatzen badute eskubidea, denbora hori edoskitzaileak hamabi hilabete bete arte luza daiteke, eta soldata proportzioan murriztuko da umeak bederatzi hilabete betetzen dituenetik aurrera.*



5. Langileek ordubetez lana uzteko eskubidea izango dute, haurra garaia baino lehen jaiotzen bada edo, edozein arrazoi dela-eta, erditu ondoren ospitaleratuta segitu behar badu. Lanaldia murrizteko eskubidea ere izango dute, gehienez ere bi orduz, soldata proportzio berean gutxituta. Baimen hau baliatzeko, 7. apartatuan ezarritakoa bete behar da.

6. Legezko zaintza dela bide, hamabi urte baino gutxiagoko adingabea edota, ordaindutako jarduerarik egiten ez duen desgaitasuna duen pertsona, zuzenean zaintzeko ardura duen pertsonak eskubidea izango du eguneroko lanaldia murrizteko, baina, halakoetan, soldata ere modu proportzionalan gutxituko da; lanaldia gutxienez lanaldiaren zortzirena gutxituko da, eta, gehienez, erdia.

Eskubide bera izango dute familiako kideren bat zaindu behar dutenek, baldin eta ahaide hori odolkidetasunezko edo ezkontzazko bigarren mailara artekoa bada eta adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik ezin bada bere kabuz moldatu eta ez badu ordaindutako jarduerarik egiten.

Gurasoek, adoptatzaileek, adopzio-helburuak dituzten gordetzailleek edo hartzaile iraunkorrek lanaldia murrizteko eskubidea izango dute. Hori egitean, hainbatean murriztuko zaie soldata. Horiek horrela, lanaldia gutxienez erdira murriztu dezakete kargura duten haurra ospitalean eta tratamendu jarraituan izan bitartean, baldin eta aipatu adingabeak minbizia (tumor gaitza, melanoma edo kartzinoma) edo beste gaixotasun larriren bat badu eta, horren ondorioz, ospitalean egon behar badu denbora luzez eta zuzeneko nahiz etenik gabeko zaintzen beharrarekin. Horrelakoetan, osasun-zerbitzu publikoaren edo Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-administrazioaren organoak egindako txostena aurkeztu beharko du langileak. Langileak horretarako baimena izango du adingabeak hemezortzi urte bete arte. Hitzarmen kolektibo bidez, lanaldi-murrizketa hori lanaldi osotan metatu ahal izateko baldintzak eta kasuak ezarri ahal izango dira.

Langile guztiek dute zenbaki honetan aipatutako lanaldi-murrizketak izateko eskubidea, gizon zein emakume. Nolanahi ere, enpresa bereko bi langilek edo gehiagok arrazoi berarengatik eskubide bera baliatzeko aukera badute, enpresaburuak mugak jar ditzake bi langilek aldi berean baimena hartzearen gain, betiere enpresaren funtzionamenduari buruzko arrazoi justifikatuak tarteko badira.

7. Langileari dagokio ordutegia zehaztea eta baimenak eta lanaldi-murrizketak erabakitzea (4., 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitakoak), bere lanaldi arruntaren barruan. Hala ere, hitzarmen kolektiboetan 6. apartatuan aipatutako lanaldi-murrizketaren ordutegia zehazteko irizpideak ezar daitezke, kontuan hartuta langilearen bizitza pertsonala, familiarra eta laborala kontziliatzeko eskubideak eta enpresen ekoizpen-eta antolaketa-beharrak. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, langileak enpresaburuari hamabost egun lehenago jakinarazi beharko dio, edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan zehazten den aurrerapenarekin, bularreko haurren zaintza-baimena edo lanaldi-murrizketa zer egunetan hasi eta bukatuko den zehaztuta.

Enpresaburuaren eta langilearen artean sortzen diren desadostasunak —4., 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako ordutegia zehazteari eta baimenaldiak erabakitzeari buruzkoak— lan-arloko jurisdikzioak ebatziko ditu, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 139. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez.

8. Genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima diren langileek eskubidea edukiko dute lanaldi-murrizketa aplikatzeko, ondo babestuta egon edo gizarte-laguntza osoa jaso ahal izateko (soldata horren proportzioan gutxituko da), edo beren lanaldia berrantolatzeke: lan-ordutegia egokitu, lan-ordutegi maguan aritu edo enpresan lanaldia antolatzeke erabiltzen diren beste modu batzuk.

Eskubide horiek erabiltzeko baldintzak hitzarmen kolektiboetan zehaztuko dira, edo enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordioetan, edo enpresaren eta ukitutako langileen arteko akordioetan. Hitzarmen kolektiboetan edo akordioetan eskubideak erabiltzeko baldintzei buruz ezer xedatu ez bada, aurreko paragrafoan zehaztutako arauak aplikatuko dira, desadostasunak konpontzeari buruzkoak barne.»

«Langileen Estatutuaren 34. artikulua:

.....

8. Langileek eskubidea dute egokitzapenak eskatzeko lanaldiaren iraupenean eta banaketan, lanaldiaren antolamenduan eta prestazio moduan, urrutiko lana egitea barne, bizitza familiarra eta laborala kontziliatzeko duten eskubidea gauzatzeko. Egokitzapen horiek arrazoizkoak eta proportzionatuak izan beharko dira, langilearen beharrekiko eta enpresaren antolamendu- edo ekoizpen-beharrekiko.

Seme-alabarik izanez gero, langileek seme-alabek hamabi urte bete arte dute eskaera hori egiteko eskubidea.

Negoiazio kolektiboan itundu beharko dira eskubide horiek gauzatzeko baldintzak, zeinak sexu bateko eta besteko langileen artean zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik ez dagoela bermatzen duten irizpide eta sistemetara egokituko baitira. Halakorik ezean, enpresak, lanaldia egokitzeko eskaeraren aurrean, negoziazio-prozesu bat irekiko du langilearekin, gehienez ere hogeita hamar egunez. Epe hori amaitutakoan, enpresak, idatziz, eskaera onartzen duela jakinaraziko du, proposamen alternatibo bat proposatuko du langilearen kontziliazio-premiak asetzeko, edo, bestela, uko egiten diola adieraziko. Azken kasu horretan, erabakia hartzeko zer arrazoi objektibotan oinarritu den adieraziko da.

Langileak aurreko lanaldira edo kontratu-modalitatera itzultzeko eskatzeko eskubidea izango du adostutako aldia amaitu ondoren edo inguruabarrak aldatu izanak hala justifikatzen duenean, aurreikusitako aldia igaro ez bada ere.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez die kalterik egingo 37. artikuluan ezarritakoaren arabera langileak eskubidez dituen baimenei.

Enpresako zuzendaritzaren eta langilearen artean sortzen diren desadostasunak lan-arloko jurisdikzioak ebatziko ditu, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 139. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez.»

## IV. KAPITULUA

### ESZEDENTZIAK

28

#### **47. artikulua.- Nahitaezko eszedentzia.**

Nahitaezko eszedentziak lanpostua gordetzeko eta hari dagokion antzintasuna zenbatzeko eskubidea emango du, eta honako kasu hauetan gertatuko da, betiere, aldez aurretik ikastetxeari idatziz jakinarazita:

- a) Lanera joatea eragozten duen kargu publiko baterako izendatu edo aukeratu badute langilea.
- b) Eginkizun sindikalak baliatzeko, probintzian edo eremu zabalagoan, betiere langilearen sindikatuak legezko ordezkagarritasun nahikoa badu gizarte-ekimeneko irakaskuntzaren sektorean.

Nahitaezko eszedentzian dagoen langileak gehienez 30 egun naturaleko epean hasi beharko du berriz lanean bere eszedentzia eragin zuen zerbitzua, kargua edo eginkizuna utzi ondoren, aurreko b) letran adierazitako egoeran izan ezik, horretan 2 hilabetekoa izango baita lanera itzultzeko gehieneko epea.

#### **48. artikulua.- Senideren bat zaintzeko eszedentzia.**

Gehienez ere bi urteko eszedentzia-aldirako eskubidea izango du langileak senitarteko bat (bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duena) zaintzeko, betiere hura adina, istripua edo gaixotasuna edo baliaezintasuna direla-eta bere kabuz balia ezin badaiteke, eta ordaindutako jarduerarik gauzatzen ez badu.

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, antzintasunerako zenbatuko da langilea eszedentzia-egoeran dagoen aldia. Lehenengo urtean bere lanpostua gordetzeko eskubidea izango du. Epe hori amaitzean, lanbide-talde edo -kategoria bereko lanpostu bat gordeko zaio.

#### **49. artikulua.- Borondatezko eszedentzia, lanpostua erreserbatu gabe**

Langileen Estatutuaren 46.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastetxean gutxienez urtebeteko antzintasuna duen langileak borondatezko eszedentzia hartzeko eskubidea izango du. Eszedentzia horrek gutxienez lau hilabete iraungo du, eta gehienez bost urte. Pertsona berak eskubide hori berriro erabiliko badu, lau urte igaro behar dira aurreko borondatezko eszedentziaren amaieratik.

 OHARRAK

Enpresan hutsik dauden edo egon litezkeen kategoria bereko edo antzeko kategoriako lanpostuetan berriz ere sartzeko lehentasunezko eskubidea borondatezko eszedentzian dagoen langileari gordeko zaio soilik.

#### **50. artikulua.- Borondatezko eszedentzia, lanpostua erreserbatuta.**

Ikastetxean gutxienez urtebeteko antzinatasuna duen eta aurreko lau urteetan borondatezko eszedentziarik hartu ez duen langileak eskubidea dauka ikasturte osoko borondatezko eszedentziarako aukera aitor dakion, gutxienez ikasturte baterako eta gehienez bosterako.

Lehenengo bi urteetan, langileak bere lanpostua gordetzeko eskubidea izango du; horretarako, ikastetxeari jakinarazi beharko dio lanera itzultzeko erabakia hiru hilabete lehenago, gutxienez.

Bi ikasturteko epe hori iragan ondoren, eszedentzian dagoen langileak lehentasun-eskubidea baino ez du izango enpresan dauden edo egon litezkeen kategoria bereko edo antzeko lanpostu hutsetan berriz ere sartzeko.

Eszedentzia hori idatziz eskatu beharko dute gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin, ezinezkoa izan dela egoki justifikatuta dagoenean izan ezik.

Ikasturtea hasten denetik baliatuko da eszedentzia hori, ikastetxearen titularrarekin hura aurreratzea adostu ezean.

Lanpostua gordetzeko eskubidea duten eta eszedentzian dauden langileak gainerako langileen ondorio berdinen eraginpean daude plantilla-murrizketarik egonez gero.

#### **51. artikulua.- Ikasturte bateko eszedentzia.**

Enpresan jarraian bost urte baino gehiago lanean aritu diren langileek ikasturte bateko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute, beren lanbide-hobekuntzarekin zerikusia duten jarduerak egiteko.

Eszedentzia-mota hau baliatzen dutenek lanpostuan automatikoki berriz hasteko eskubidea izango dute, eta antzinatasuna zenbatuko zaie; betiere, denbora horretan zehar egin duten jarduera behar bezala frogatzeko bidea izan beharko dute.

29

Enpresaren eskola-urtea amaitzean (abuztuaren 31n) hasiko da eszedentzia hori.

#### **52. artikulua.- Seme edo alaba bakoitza zaintzeko eszedentzia.**

Langileek eskubidea izango dute hiru urtera arteko eszedentzia-aldia hartzeko, seme edo alaba bakoitza zaintzeko, haiek jaiotza, adopzio, harrera iraunkor zein adopziorako harrera bidezkoak izan. Eszedentzia-mota hau amatasun-lizentzia amaitu ondoren hartzekoa da, lizentzia horren barruan hartuta bularra emateko lanaldi-murrizketaren ordeko ordaindutako bi asteak. Ondorengo seme edo alabetariko bakoitzak beste eszedentzia-aldi baterako eskubidea sorraraziko du; eszedentzia horrek amaiera emango dio langilea baliatzen ari den beste eszedentziari, hala bada kasua. Artikulu honetan ezarritakoaren arabera eszedentzian langileak ematen duen aldia antzinatasun-ondoretarako zenbatuko da, eta langileak eskubidea izango du lanpostua gordetzeko ez ezik, lanbide-prestakuntzarako ikastaroetara joateko ere, eta horietara deitu beharko dio enpresaburuak.

Seme edo alaba bakoitza zaintzeko eszedentzia-aldia ikasturtea amaitu arte luzatzea erabaki dezakete hura baliatzen ari diren langileek.

#### **53. artikulua.- Ikastaroak egiteko urtebetetik beherako eszedentzia.**

Langileari urtebetetik beherako borondatezko eszedentzia ematen bazaio eta haren espezialitate-arloko hobekuntza-ikastaroetarako, ikasketa-bidaietarako edo beketarako bada (betiere, hori behar bezala justifikatuta ikastetxearen titularrari), eszedentzia-aldi horretako antzinatasuna kontuan hartuko zaio, eta bere lanpostura automatikoki itzultzeko eskubidea izango du (7 eguneko gehieneko epea izango du horretarako). Lanera itzultzean, egindako jarduera egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

#### **54. artikulua.- Lanean berriz hastea eszedentziaren ondoren.**

Nahitaezko eszedentzia eta kapitulu honetan zehaztutako eszedentzia bereziak baliatu dituztenak, eszedentzia-aldia amaitu eta ezarritako epeetan lanera itzultzen ez badira, behin betiko baja izango dira ikastetxean.

### **V. KAPITULUA**

#### **EGUNERATZE-, HOBEKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE-IKASTAROAK**

#### **55. artikulua.- Hobekuntza-ikastaroak.**

Hobekuntza-ikastaroetarako baimenak ordainsaria jasotzeko eskubidea dakar, betiere, ikastetxearen titularrak onetsi badu. Langilea beka bat baliatzen ari bada, ikastetxearen titularrak bekaren balioaren eta langilearen soldataren arteko aldea baino ez du ordainduko.

Hobetzeko ikastaroak egiteko eskatzaileen kopurua langile guztien % 5 baino handiagoa bada eta ikasleen oporraldi-garaia ez bada, ikastetxearen titularrak baimenak emateko modu egokia ezarri ahal izango du ikastetxearen beharren, antzinasun-merezimenduen eta interesdunek baimen-mota hori eskatu gabe igarotako denboraldiaren arabera.

Ikastaroa ikasturtearen barruan lanorduetatik kanpo egitekoa bada, urteko lanalditik deskontatu ahal izango dira ordu horiek, hala adosten bada ikastetxearen titularrarekin.

Ikastetxeak nahitaez aukera eman behar die langileei IRALERen ikastaroak izapidetzeko/eskatzeko, eta eman beharko ditu ikastaro horietan parte hartzeko behar diren baimenak, baita administrazioak % 100ean finantzatzen dituen ikastaroetan (prestakuntza- zein ordezkatzeko-gastuak barne) parte hartzekoak ere, betiere, irakasleen % 5ek baino gehiagok ez badute parte hartzen horietan.

Enpresaburuek konpromisoa hartzen dute Eusko Jaurlaritzari helarazteko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileak eta Hezkuntza Laguntzako espezialistak IRALERen ikastaroetan sartzeko aukera.

#### **56. artikulua.- Azterketak egiteko lizentziak.**

Ikastetxeak lanbide-titulu bat lortzeko ikasketak egiten ari diren langileak bere zerbitzuan baditu, deialdi ofizialeko azterketetara joateko behar dituzten lizentzia guztiak emango dizkie, ordainsarian eraginik izan gabe; betiere, interesdunek justifikatu behar dute, aldez aurretik, ikasketa horien matrikula egina dutela, bai eta azterketetara joan direla ere. Lizentzien iraupena egun batekoa izango da azterketa bakoitzerako, eta hiru egun naturalekoa izan daiteke 150 kilometrotik gorako bidea egin behar izanez gero.

#### **57. artikulua.- Hobekuntza-ikastaroak egiteko baimenak.**

Hobekuntza- edo birziklatze-ikastaroak edo beste titulu batzuk lortzeko ikastaroak egitea ikastetxearen titularrak proposatzen badu edo langileek horretarako egindako proposamena onartzen badu, ikastaroak egingo dituzten langileek behar duten denbora izango dute ikastaroak egitera joateko, eskubidea izango dute dagokien soldata osorik jasotzeko, eta ikastaroak eragindako gastuak ordainduko zaizkie (joan-etorriak, egonaldia, otorduetarako dieta eta matrikula).

Beste titulu batzuk lortzeko ikastaroak badira, ikastetxe bakoitzean konpromiso bat ezarri ahal izango da, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzea lortzeko langileak horretan gutxieneko denbora-tarte batez jarraitzeko konpromisoarekin.

30

**IV. TITULUA**  
**ORDAINSARIAK**  
**I. KAPITULUA**  
**XEDAPEN OROKORRAK**

**58. artikulua.- Ordaintzeko modua.**

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren eraginpeko langileen ordainsariak soldata-tauletan eta hitzarmenaren artikuluetan ezarrita daude.

Soldata hilabetea amaitutakoan ordainduko da, hurrengo hilabeteko lehenengo bost egunetan, lanaldiaren barruan. Dirua, txekea, bankuko taloia edo transferentzia erabili ahalko da ordainketa egiteko. Ordaintzeko beste modalitate batzuk itundu ahal izango dira. Banku-transferentzien kasuan, langileak adierazi behar du zer bankutan sartu behar den dirua.

**59. artikulua.- Goragoko maila bateko eginkizunengatiko aldi baterako plusa.**

Langileari bere lanbide-kategoriari dagokion mailatik goragoko eginkizunik eginarazten baldin badiote aldi baterako (betiere, arrazoiak emanda), eginkizun horri dagokion lansaria jasoko du, horretan ari den bitartean.

**60. artikulua.- Goragoko maila bateko eginkizunengatiko kategorialdaketa.**

Langileek, aitortua dutena baino goragoko kategorial bateko eginkizunak urtean 6 hilabetetik gora edo bi urtean 8 hilabetetik gora betetzen baditu, eskubidea du kategorial horretara aldatzeko eta hari dagozkion ordainsariak jasotzeko, betiere, horretarako behar den titulazioa badu.

**61. artikulua.- Hilabeteko aurrerakinak.**

Hitzarmen honen eraginpeko langile finkoek ikastetxean gutxienez urtebetez jardun badute, eskubidea izango dute hileko aurrerakinak jasotzeko, horren beharra daukatela justifikatuta. Aurrerakin horiek ez dira hileko soldataren zenbatekoaren % 90etik gorakoak izango.

Langileen % 30ek edo gehiagok eskubide hori baliatu badute, ikastetxeak uko egin ahal izango dio aurrerakina emateari.

**62. artikulua. Ordainsariak.**

Soldata-tauletan, I. eranskin gisa atxiki diren horietan, kategorial profesional desberdinetako ordainsariak agertzen dira Hitzarmen Kolektiboaren indarraldiko urte bakoitzerako.

Taula horietan jasotako soldata-igoerak honako hauek dira:

2017. urtean: % 1.

2018. urtean: % 1,60 (KPI 2017 EAE+ % 0,5).

2019. urtean: % 3,00 (KPI 2018 EAE+ % 2,0).

2020. urtean: % 3,20 (KPI 2019 EAE+ % 2,0).

Aldeek berriaz adosten dute 2021. urteko soldata-aulak negoziatuko dituztela.

2017, 2018 eta 2019ko soldaten atzerapenak gehienez ere 2020-12-31n ordaindu beharko dituzte ikastetxeek.

### **63. artikulua.- Atzerriko ikastetxeetako lana.**

Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden irakaskuntza arautuko espainiar ez diren ikastetxeetan diharduten langile espainiarren lansariak, ez dira, langileen kategoria berean, ikastetxe horren nazionalitate bereko langileei dagozkien lansariak baino txikiagoak izango, ez eta hitzarmen honetan adierazita daudenak baino txikiagoak ere.

## **II. KAPITULUA**

### **SOLDATA-OSAGARRIAK**

### **64. artikulua.- Gobernu-kargudunen aldi baterako osagarria.**

Zuzendari, zuzendariorde, ikasketa-buru, saileko buru, mintegiko buru, zikloko koordinatzaile eta arloko koordinatzaile kargua esleitu zaien irakasleek, eginkizun horretan diharduten bitartean, horretarako soldata-tauletan jasota dauden haborokinak kobratuko dituzte, 28. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

### **65. artikulua.- Tutoretza-osagarria.**

Hitzarmena izenpetzen duten enpresaburuen elkarte eta sindikatuen helburua tutoreen eskola-orduak gutxitzea da tutoretza-lanak konpentsatzeko. Dena den, finantzazioa handituko duen ratio-aldaketa ematen ez den bitartean, urteko zenbateko hauetan ezarritako berariazko lansari-osagarri baten bidez konpentsatuko dira tutoretza-lanak, hamalau ordainsaritan.

2017: 787,60 euro urtean

2018: 800,20 euro urtean

2019: 824,21 euro urtean

2020: 850,58 euro urtean

Ikasgela batean tutoretza-eginkizunak tutore bati baino gehiagori esleitzen bazaizkio, kontzeptu honetan bakoitzak kobratu beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da: gorago adierazitako zenbatekoak zati ikasgelako tutore-kopurua. Tutoretza-eginkizunak egiteagatik tutorea eskola-ordutegiaren murrizketa baliatzen ari bada, ez du osagarri hau kobratuko.

### **66. artikulua.- Antzintasun-osagarria.**

Hitzarmen honetako I. ERANSKINEAN adierazitako zenbatekoa ordainduko da hirurteko bakoitzagatik antzintasun-osagarri gisa.

Hirurtekoa bete eta hurrengo hilaren lehenengo egunean eragina sortzen hasiko da hirurteko bakoitzaren zenbatekoa.

### **67. artikulua.- Aparteko haborokinak.**

Hilabetetik goragorako epemuga duten aldian behingo osagarri gisa, hitzarmenaren aplikazio-eremuan dauden langileek aparteko bi haborokin jasoko dituzte urtean, bakoitza hilabeteko soldata arrunt baten zenbatekokoa. Uztailaren 1a eta abenduaren 22a baino lehenago ordainduko zaizkie, hurrenez hurren.

### **68. artikulua.- Aparteko pagen proportzioa.**

Ikasturtea hasita dagoela lanpostua utzi duten edo lanean hasi diren langileei arestian aipatutako hilabetetik gorako epemuga duten osagarriak ordainduko zaizkie. Osagarri haien zenbatekoa lan egindako denboraren proportzioan hainbanatuko da, seihilekoka.

### **69. artikulua.- Aparteko pagen hainbanaketa.**

Ikastetxearen titularra eta langileen ordezkariak ados jarrita, aparteko bi haborokinak 12 hilabeteetan hainbanatzea erabaki ahal izango da, ordura arte hala egiten ez bazen.



## **70. artikulua.- Garraio- edo distantzia-plusa.**

Garraio edo distantziaren kontzeptuengatik zenbatekoren bat hobekuntza gisa ematen ari ziren ikastetxeek, hala egiten jarraituko dute, eta hura ezin izango da irentsi hitzarmen honen indarraldian.

## **71. artikulua.- Dietak, egun batetik gorako eskola-irteerak eta joan-etorrietako gastuak.**

1.- Dietatzat hartuko dira edozein irteeratan kanpoan egoteak eta mantenuak eragindako gastuei erantzuteko ezarritako eguneko kopuruak, baldin eta gastu horiek langilearen konturakoak badira eta kanpora joan bada titularrak eskatu diolako edo titularrak langileak egindako proposamena onartu duelako. Dietak honako hauek izango dira:

2017:

Gosaria: 3,40 euro      Bazkaria: 16,81 euro      Afaria: 10,08 euro      Ostatua: 46,52 euro

2018:

Gosaria: 3,45 euro      Bazkaria: 17,08 euro      Afaria: 10,24 euro      Ostatua: 47,26 euro

2019:

Gosaria: 3,55 euro      Bazkaria: 17,59 euro      Afaria: 10,55 euro      Ostatua: 48,68 euro

2020:

Gosaria: 3,66 euro      Bazkaria: 18,15 euro      Afaria: 10,89 euro      Ostatua: 50,24 euro

2.- Ikasleekiko irteeretan, ohiko bizilekutik kanpo gaua igaro behar izanez gero, zenbateko hauek izango dira konpentsazioa:

2017: 42,68 euro

2018: 43,36 euro

2019: 44,66 euro

2020: 46,09 euro

3.- Bidaia-gastuak: Baldin eta ikastetxearen titularrak langileari zerbitzu bat egiteko eskatzen badio eta horretarako langileak bere ibilgailua erabili behar badu, ibilitako kilometroko 0,27 euro ordainduko dio, bai eta autobideko bidesaria ere (egiaztagiria aurkeztu beharko du).

4.- Hala adostuz gero, hitzarmen honetan ezarri ez diren konpentsatzeko beste formula batzuk itundu ahal izango dira.

## **72. artikulua.- Jarraipen-saria.**

Iraupen- edo jarraipen-saria ezartzen da, ikastetxean gutxienez 20 urte lanean eman duten 55 urtetik gorako langile guztientzat. Sari horren zenbatekoa hauxe izango da: hitzarmenaren 68. artikuluan araututako aparteko lau haborokinen zenbatekoa, laneko lehen 20 urteengatik, eta beste paga bat gehiago 20 urte horietatik gora egin diren 5 urteko aldi bakoitzeko. Langileak hautatu ahal izango du edo saria 55 urte betetzean jasotzea, edo aurreragoko beste edozein unetan: jaso beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, saria eskatzen den unean eginda dituen lan-urteen kopurua hartuko da kontuan. Adinaren eta antzinasunaren betekizunak beteak baditu, eta lan-kontratua bukatzen bada langileak saria jaso gabe, lana uzteagatiko likidazioan sartuko da haren zenbatekoa.

**V. TITULUA**  
**SOROSPEN-ARAUBIDEA**  
**I. KAPITULUA**  
**LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

**73. artikulua.- Laneko segurtasuna eta osasuna.**

Ikastetxeak eta hitzarmen honen eraginpeko langileek bete beharko dituzte Langileen Estatutuaren 19. artikuluko Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko xedapenak, baita gainerako xedapen orokorrak ere.

Ikastetxeak arriskuen ebaluazioa egin beharko du (barne direla arrisku psikosozialak, eta zamak eskuz erabiltzearen ondoriozko haurdun dauden Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko langileen eta Hezkuntza Laguntzako Espezialisten arriskuak), eta dagokion prebentzio-plana idatzi ere bai, betiere, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoari jarraituz.

Halaber, hitzarmen honen eraginpeko langileek eskubidea izango dute osasun-azterketa bat egiteko urtero, interesdunak hala onartzen badu. Orientabide moduan izan arren, alor hauek aztertzeko bidea izango da: audiometria, foniatria, fotoserazioa, ikusmena, odol- eta gernu-analisiak, historia klinikoa, medikuntza-araketa eta, hala balegokio, berariazko azterketak, hala nola, elektrokardiograma, espirometria, eta abar. Ikastetxeko titularrek kontratatutako mutualitateak gai honetan eskaintzen dituen zerbitzuen berri emango diete langileen ordezkari.

Hitzarmen honen batzorde paritarioak lanbideak sortutako gaitzetan (foniatria, nerbio-arazoak,...) espezializatutako berariazko zerbitzu bat sortzeko aukera kudeatuko du OSAKIDETZAn, bai eta hori katalogatu eta zaintzeko aukera ere.

**74. artikulua.- Sexu-jazarpena eta jazarpen morala.**

Hitzarmena izenpetzen duten enpresaburuen elkarteek beren uste osoz adierazten dute ezin dela onartu sexu-jazarpeneko edo jazarpen moraleko jokaerarik. Horretarako, adierazten dute asmoa dutela prestakuntza-ekintzak egiteko sexu-jazarpena edo jazarpen morala prebenitzeko, identifikatzeko eta salatze.

Aurrekoa gorabehera, enpresen berdintasun-planek sexu-jazarpenaren eta sexu-identitatean oinarritutako jazarpenaren prebentzioa izan behar dute beren edukien barnean.

**II. KAPITULUA**  
**HOBEKUNTZA SOZIALAK ETA ERRETIROAK**

**75. artikulua.- Laneko arropa.**

Ikastetxeek laneko arropa emango diete menpeko langileei eta tailer edo laborategietako teknikari, eta oinetako egokiak emango dizkiete adar industrialetako prestakuntza-zikloetako langileei.

Gainerako irakasleek, hala eskatzen badute edo errotutako ohitura bada, mantal bat jasoko dute urtean, eta erabili beharko dute irakaskuntza-jardueretan; Gorputz Hezkuntzako irakasleei, txandal bat eta kirol-oinetakoak emango zaizkie, eta, beharrezkotzat joz gero, jantzi berogarri bat.

**76. artikulua.- Erretiro partziala eta birkokatzea.**

Erretiro partzialaren eta birkokatzearen arloan, Hitzarmen honen eremuko langile guztiei aplikatu dakieke 2019ko azaroaren 9ko greba-amaieraren akordioaren zazpigarren puntua, bai eta Hitzarmenaren Negoziazio Batzordearen 2019ko abenduaren 13ko 43. bileraren aktaren V. Eranskinean horren gainean jasotako azalpenak ere.

34



**OHARRAK**

--

Jarraian, 2019ko azaroaren 9ko greba-amaieraren akordioaren zazpigarren puntuaren testua jaso dugu, hitzez hitz:

«Zazpigarrena.-

7.1.- KRISTAU ESKOLAK aitortzen duenez, indarreko hitzarmen kolektiboaren eremu funtzionalaren barruan sartzen diren gizarte-ekimeneko hezkuntza itunduko sareko langile guztiak izango dute eskubidea beren lanaldia % 75 murrizteko, baldin eta erretiro partziala eskuratzeko lege ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Hala eginez gero, % 25eko lanaldi partzialeko kontratua sinatuko litzateke ordezkaturako den pertsonarentzat, eta lanaldiaren % 100eko kontratu mugagabea, berriz, ordezkaturako den pertsonarentzat.

Langilea erretiro partzialera pasako da, honako data hauetan:

- Urtarrilaren 2aren eta irailaren 1aren artean erretiro partziala eskuratzeko baldintzak betetzen badira: irailaren 1a.

- Irailaren 2aren eta urtarrilaren 1aren artean erretiro partziala eskuratzeko baldintzak betetzen badira: urtarrilaren 1a.

% 25eko lanaldia lehen ikasturtean metatu ahal izango da, langileak bestelakorik adierazten ez badu.

7.2.- Aldeek berariaz adostu dute ondorenik gabe utziko dutela indarrean den hitzarmen kolektiboko 77 b) artikulua. Hitzarmenari uko egiteko, bete egin behar da aurreko 7.1. puntuan ezarritako konpromisoa: ordezkaturako den langilearen lanaldia % 75 murriztuko da; eta ordezkaturako den langilea % 100erako kontratatuko da.

Hori dela eta, akordio hau sinatzen duten aldeei ez dagokien arrazoiren baten ondorioz konpromiso hau bete ezin bada, eta, beraz, akordioa indargabetuta geratzen bada datozen urteetan, KRISTAU ESKOLAK hitz ematen du hitzarmen kolektibora sartuko duela, berriz, egun 77.b artikuluan ezarrita dagoen murrizketarako eskubidea (egokituz eta 60 urtetik aurrera aplikatuz).

7.3.- Birkokatzea:

Gelak itxeagatik beren lanpostua galtzen duten langileak birkokatze prozedurak nahitaez bete beharko ditu ezaugarri hauek:

35

1.- Ikastetxean dauden lanpostuak alde aurretik ezarriko dira, eta bi ikasturtean behin eguneratu beharko dira (apirilean), honako datu hauek zehaztuz: dauden lanpostuen kopurua; lanpostu bakoitzaren hezkuntza-etapa, irakasleak badira (hezkuntza-laguntzaileko espezialistak eta 0-3 barne), lanpostu bakoitza betetzen ari den langilearen titulazioa eta profila... (ikastetxe bakoitzaren lanpostuen zerrenda bezalako zerbit). Irakasleak ez direnentzat, lanpostu bakoitzaren titulazioa eta profila ere zehaztuko dira.

2.- Honako irizpide hauek ezartzen dira gelak murriztearen ondorioz beren lanpostua galtzen duten langileak zehazte aldera:

- Lehenik eta behin, ikastetxean baja emateko beren borondatez eskatzen duten langileak.

- Bigarrenik, ikastetxean antzinasun txikiena egiaztatzen duten langileak.

Salbuespen kasuetan, eta soilik baldin eta iraungipenen batek kalte nabarmena eragiten badu erakundearen edo ikastetxearen proiektu pedagogikoan, birkokatzearen batzorde paritarioan aztertuko da.

3.- Langileak birkokatze, honako irizpide hauek jarraituko dira, eta, edonola ere, titulazioaren, profilaren eta espezialitatearen baldintzak beteko dira:

- Antzinasuna lan-poltsan.

- Antzinasuna sektorean.

4.- Horretarako, lanpostu hutsa dagoela ulertuko da langileak behar badira, honako egoera hauen ondorioz:

- Itundutako gela igoera.

- Ratioen igoera.

- Erretiroak (behin betikoak, partzialak, aurreratuak eta abar).
- Borondatezko bajak.
- Ezintasunak eta heriotzak.
- Eszedentziak, lanpostuaren erreserba galdutakoan.

5.- Maiatzaren 31 bakoitzean (matrikulazioa beranduago egiten den etapetan –Batxilergoa eta LH–, data zehazteke), ikastetxeek eszedentzien eta beharizanen (lanpostu hutsen) berri emango diote jarraipen-batzordeari, azken horrek kudeatuko duen birkokatze prozesua.

6.- Bermatu egin beharko da ikastetxean 2 urteko edo gehiagoko antzinatasuna duten aldi baterako langileak eta lan-poltsatuko langileak berdintasun-baldintzetan sartu ahal izango direla, lanpostu huts horiek estaltzeko.»

Jarraian, Hitzarmenaren Negoziazio Batzordearen 2019ko abenduaren 13ko 43. saioaren aktako V. Eranskineko zati bat jaso da:

«-Erretiro partzialaren kasuan, langileak legezko baldintzak betetzen baditu irailaren 2aren eta abenduaren 30aren artean, aurre-erretiroa abenduaren 31n egingo da.

Salbuespen gisa, 1958ko apirilaren 30a baino lehen jaiotako langile guztiei, apirilaren 30a barne, erretiro partziala hartzeko legezko baldintzak betetzen badituzte, erretiro partziala hartzeko aukera bermatuko zaie, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak ezarritako baldintzetan, 2020ko martxoaren 1ean (edo apirilaren 1ean, kotizatutako lan-bizitzaren eraginpean egon direnentzat). Horrez gain, zentroak eta langileak akordio bat sinatuko dute, lanaldiaren % 25eko zenbaketaren edo metaketaren amaiera-data 2019ko abenduaren 31n erretiro partziala hartu izan balu izango zukeenaren berdina izan dadin.

- Gaur egun lanaldi-murrizketa daukan langileak 2020ko ekainaren 30ean amaituko du liberazio hori.
- Birkokatze prozesuaren araudia negoziatzeko, lan-mahai bat eratuko da, martxoan zehaztuta izateko.»

## 77. artikulua.- Ikasteko laguntzak.

Hitzarmen honen eremuko ikastetxe guztiek ikasketei laguntzeko ordezkotza erregimen bat daukate hitzarmen honetan sartuta dauden langileentzat; irizpide hauek ditu:

- a) Hitzarmen honen eraginpean dauden langileen seme-alaba eta umezurtz izanda, hitzarmen honen eraginpeko ikastetxeetan ikasten dutenentzat, ikastetxeetan ematen diren irakaskuntza-maila guztiak, baita orokorrean egiten diren beste edozein eratako osagarritzko ekintza guztiak ere, dohainik izango dira.
- b) Langileek beren zerbitzuak lanegun-erdiz, gutxienez, egiten badituzte, edo erretiro partzialeko egoeran badaude, lantokian ematen diren ikasketak, langileentzat eta beren seme-alabentzat, dohainik izango dira.
- c) Lan sindikaletan aritzeko beren borondatez edota derrigorrez lana aldi baterako utzita duten langileen seme-alabek, 47. artikuluko a) letran jasotakoak izan ezik, ikasketak dohainik egiteko plaza eskatzeko eta hori lortzeko eskubidea dute.
- d) Hitzarmen honetan sartutako langileen seme-alabek eta umezurtzek ikasketak dohainik egiteko plazak, honenbeste izango dira: Lehen Hezkuntzan % 3 eta hitzarmen honen eremu funtzionalean aipatzen diren gainerako hezkuntzako jardueretan, % 2.  
Ikastetxean bertan, ordea, langileen seme-alabek plaza dohainik edukiko dute, jarritako gehienekoa gaindituta ere. Baina, bertako langileen seme-alabekin kopurua beteta egonez gero, ikastetxe bakar batek ere ez du beste ikastetxe batzuetako langileen seme-alabentzat derrigorrez tokirik dohainik jarri beharko. Administrazioak ikasketei laguntzeko itzulitako diruarekin, langileen seme-alaben % 2ari baino gehiagori eman ahal izango zaizkien laguntzak.
- e) Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko bekei dagokienez, uste da maila horretako hezkuntzari dagokion partea jardueraren % 15 dela. Eta artikulua honen bitartez, parte hori bakarrik lagun daiteke bekekin.
- f) Hitzarmen honetan jasotako doaneko plazak lortu eta emateari buruz, III. eranskinean agindutakoa egingo da.

- g) Artikulu hau ezartzearen ondorio guztietatik kanpo gelditzen dira hitzarmen honetako 2. artikuluko azkeneko lerroaldean sartuta dauden langileen seme-alaba eta umezurtzak.  
BGAE sektorial bat martxan jartzen bada, ikasketetarako laguntzen erregimen hau aldatu egingo da. Sektorea Aztertzeiko Batzordeari ahalmena ematen zaio aipatu aldaketaren baldintzak eta irismena definitzeko.

#### **78. artikulua.- Jantoki-zerbitzua eskatzeko eskubidea.**

34. artikulua eraginpean ez dauden langileek eskubidea izango dute jantoki-zerbitzuak eskatzeko, ikasleei ezarritako zenbatekoaren % 50 ordainduta gehienez.

#### **79. artikulua.- Jantoki-begiraleak.**

Jantokia edo barnetegia daukaten zentroetan, jantoki- eta sukalde-zerbitzuak ematen dituzten langileek ikastetxean jateko eskubidea izango dute lan egiten duten egunetan, baldin eta haiek ikastetxean dauden bitartean badira otorduak.

#### **80. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguru eta istripu-aseguru.**

Ikastetxe guztiek bi aseguru-poliza izan beharko dituzte, hitzarmen honen eraginpeko langile guztien erantzukizun zibila eta norbanakoen istripuak estaliko direla bermatzeko.

Hitzarmen honen peko ikastetxeak poliza horiei atxikiko zaizkie, eta, ikasturte bakoitzaren hasieran, jendaurrean jakinaraziko dizkiete langileen ordezkariari haien xehetasunak eta ezbeharra izanez gero jarraitu beharreko prozedurak.

TC-2 Buletinak tarteko Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda dauden irakasle eta irakasle ez diren langile guztiek egon beharko dute aseguraturuta, baita nahitaezko eszedentzia-egoeran dauden langile guztiek ere (haien izenak zehaztuta), egoera horretan kargu publikorako izendatua edo aukeratua izateagatik daudenak izan ezik.

Laburbilduta, honako hauek izango dira adierazitako polizen bermeak:

Erantzukizun zibila: Aseguratutako langileek izan dezaketena, profesionalak soilik diren jardunak direla-eta, fidantza eta defentsa kriminala barnean hartuta, eta bazter utzita Ibilgailuen Adarrak aseguraturuta izan ditzakeenak, eta poliza horrek bermatzen dituen kalte materialen edota gorputz-arlokoen zuzeneko ondorio ez den edozein kalte immaterial. Istripuagatiko gehieneko prestazioa: 300.510 euro.

Norbanakoen istripuak: Laguntza mediko, kirurgiko zein farmazeutikoa istripua gertatzen den kasuan, edozein izanik ere istripua eragin duen arrazoiak, lanbidea egikaritzean nahiz bitzita pribatuan, munduko edozein lekutan, edozein jarduera egiten den bitartean eta edozein lokomozio-bide erabiltzean; polizatik kanpo soilik geratuko dira legez ezarritako egoerak eta aseguru-konpainiek normalean jasotakoak.

Kapital aseguraturuta, heriotza gertatuz gero: 18.030 euro. Ezintasun iraunkorra gertatuz gero: 30.051 euro. Badira azken zifra horren gaineko ehuneko batzuk, gorputz-adarrak galdu edo haien erabateko ezereztasunak gertatzen diren kasuetarako. Ez dago eguneko kalte-ordainik lanorduen galera dela-eta. Aseguru honen eskubideak bateragarriak dira beste edozeinenekin.

#### **81. artikulua.- Partzialki ordaindutako baimena.**

Partzialki ordaindutako baimena har dezakete enpresan gutxienez 5 urte eramateaz gain ohiko lanaldi osoaren gutxienez % 75 egiten ari diren langileek, baldin eta enpresako langileen % 3 baino gehiago ez badira baimen hori baliatzen ari.

Partzialki ordaindutako baimenak ondoz ondoko 5 urteko iraupena edo aplikazio-aldia izango du, baldintza hauetan:

Baimenaren aldiaren lehen lau urteetan, baimena hartu duten langileek lanaldi osoa egin beharko dute, eta bosgarren urte osoan jai hartu; baimeneko bost urte horietan, ordainsari finkoen % 84 kobratuko dute.

Hitzarmenaren V. eranskinean jasotzen da baimen hori eskatzeko baldintzak, eskatzeko modua eta emateko prozedura arautuko dituen erregelamendua.



Artikulu hau indarrean jarriko da dagokion hezkuntza-administrazioak horren ondorio ekonomikoen finantzaketa bere gain hartzen duenean.

## **82. artikulua.- Hezkuntza-laguntzako espezialistak birkokatzeko lan-poltsa.**

Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE) birkokatzeko lan-poltsa bat sortzea erabaki dute aldeek, sektorean langile-talde horren egonkortasuna gehitzeko helburuarekin.

Hezkuntza-laguntzako espezialisten (HLE) lan-poltsa hitzarmen hau izenpetu duten enpresaburuen erakundeetako eta sindikatuetakako bi kidek osatutako batzorde paritario batek kudeatuko du, eta horietako bakoitzak gutxienez leku bat izango du batzordean. Batzorde paritarioaren erabakiak boto kualifikatuz eta erakundeen ordezkariak ofizialaren arabera hartuko dira, erabakiak hartzeko gutxienez % 50ek onartu behar duela, bai enpresariengatik eta bai langileen ordezkariengatik.

Lan-poltsa geografikoki lurraldez egituratuta egongo da eta lurralde bakoitza eskualdez.

Lan-poltsan izena ematea borondatezkoa izango da, eta HLEaren lan-kontratua amaitu eta hurrengo hamar egun balioduneko epean egingo da, betiere kontratuaren suntsipena langileari ezin egotz dakiokkeen arrazoiengatik gertatu bada eta batzorde paritarioak onartutako ereduaren arabera lan-poltsan sartzeko eskabidea eginez.

Gutxienez ikasturte oso batez lan egin izan beharko dute HLEek lan-poltsan onartuak izateko.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartzen diren ikastetxeek lan-poltsan inskribatutako pertsonen artetik hartuko dituzte behar dituzten HLEak, lanpostu finkoetarako zein aldi baterako lanpostu hutsak betetzeko.

Horretarako, HLE bat kontratatu nahi duenak kontratazio-eskabide bat bidali beharko du lan-poltsara; lan-poltsatik bidaliko diote ikastetxea kokatuta dagoen eskualdeko izangaien zerrenda zehatza.

Lan-poltsako batzorde paritarioak uste badu ikastetxeari dagokion eskualdean izena emanda daukaten izangaien kopurua ez dela nahikoa, eskualde mugakideetan izena emana duten izangaiekin handitu ahal izango du zerrenda, lurralde berekoak izan ala ez izan.

38 Ikastetxeak hautaketa-askatasuna izango du hautaketa-prozesua garatzeko, eta hautaketaren emaitza lan-poltsari jakinarazi beharko dio.

## **III. KAPITULUA**

### **ESKUBIDE SINDIKALAK**

#### **83. artikulua.- Diskriminaziorik ez izateko eskubidea.**

Ezein langile ezingo da baztertu afiliazio sindikalagatik, eta duen iritzia askatasunez adierazi ahal izango du. Horretaz gain, laneko interesa edo interes soziala duten argitalpenak hedatu edo banatu ahal izango ditu, laneko ohiko jardunari trabarik egin gabe, ikastetxearen titularrarekin adostuta.

#### **84. artikulua.- Sinatutako dokumentuen kopia.**

Ikastetxeko langile kontratadun guztiek sinatu dituzten lan-arloko dokumentu guztien kopia bat izateko eskubidea dute.

#### **85. artikulua.- Ordu sindikalak metatzea.**

Enpresa, probintzia edo autonomia-erkidego mailako sindikatuen jarduera errazte aldera, hitzarmen honen eremuan ordezkariak duten sindikatu-erakundeek sustatu dezakete langileen ordezkari edo enpresa-batzordeko kide batek ordu sindikalak metatzea, sindikatu bereko kide diren langileen edo langileen ordezkarien ordu-kreditu nahikoa lagatzearen bidez, enpresa batean edo hainbatean.

#### **86. artikulua.- Ordu-metaketaaren negoziazioa.**

Elkarte sindikalek edo sindikatu bakoitzak ikastetxe edo enpresaburu-elkarteekin negoziatu dezake, dagokion mailan, adierazitako ordu sindikalen metaketa. Halaber, enpresaburu-elkarteek ez diete oztoporik jarriko administrazio eta sindikatuek gai honi buruz lortutako akordioei.

### **87. artikulua.- Langileen batzarra.**

Ikastetxeko langile kontratadunek ikastetxean bertan batzarra egiteko duten eskubidea bermatuko da, betiere, irakaskuntza-jarduerak eta zerbitzuak normaltasunez ematea oztopatzen ez bada eta indarrean dagoen legeria betetzen bada.

Behar adinako aurrerapenarekin eman behar zaio batzarren berri ikastetxearen titularrari, eta jakinarazi behar zaio bai gai-zerrenda, bai ikastetxetik kanpoko zer pertsona joango diren batzarrera.

### **88. artikulua.- Ordezkarien eskumenak, eskubideak eta bermeak.**

Langileen ordezkariek, ordezkarik sindikalek eta enpresa-batzordeko kideek Langileen Estatutuak, Sindikatu Askatasunaren Lege Organikoak eta aplikagarri diren gainerako lege-xedapenek ezarritako eskumen, eskubide eta berme guztiak izango dituzte.

### **89. artikulua.- Negoiazio-mahaiko kideak.**

Hitzarmena Negoziatzeko Mahaikide izateko ofizialki izendatzen diren sindikatuetakoko kideek behar duten adina ordu hartzeko aukera izango dute hitzarmena negoziatzeko eta bilerak prestatzeko edota Hitzarmenaren Batzorde Paritarioko saioretara joateko.

### **90. artikulua.- Langileen ordezkariek. Enpresa-batzordea eta langileen ordezkariek.**

Enpresa-batzordea, edo, halakorik ezean, langileen ordezkariek, ikastetxeko langile kontratadunen ordezkaritza kolektiboko organoa dira.

Enpresa-batzordeak Langileen Estatutuan zehaztutako eginkizunak izango ditu.

## **VI. TITULUA**

### **FALTAK, ZEHAPENAK, ARAU-HAUSTEAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **FALTAK**

39

### **91. artikulua.- Falta-motak.**

Hiru falta-mota ezarri dira hitzarmen honen eraginpeko langileentzako: arinak, astunak eta oso astunak.

Honako hauek dira falta arinak:

- Lanpostuan justifikatu gabeko hiru puntualtasun-falta izatea hogeita hamar eguneko tartean.
- Justifikatu gabe lanera ez joatea egun batean, hogeita hamar eguneko tartean.
- Bidezko arrazoirik gabe amaitu beharreko ordua baino lehen eskola bukatutzat ematea, gehienez bi egunetan hogeita hamar eguneko tartean.
- Arrazoi justifikatu batengatik lanera ez bertaratzean, baja garaiz ez bideratzea, hala egitea ezinezkoa izan dela argi eta garbi dagoenean izan ezik.
- Zabarkeria izatea erabakitako egunetan ikasleen kalifikazioak emateko orduan, ikasleen bertaratze-kontrollean edo ikasleen diziplinan.

Honako hauek dira falta astunak:

- Lanpostuan justifikatu gabeko lau eta bederatzi puntualtasun-faltaren artean izatea hogeita hamar eguneko tartean.
- Justifikatu gabe lanera ez joatea bi edo hiru egunetan, hogeita hamar eguneko tartean.
- Indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen hezkuntza-arloko betebeharrak ez betetzea.
- Ikastetxean lankideekin jendaurreko eztabaidak izatea, baldin eta lankide baten irudia gutxiesten badu ikasleen aurrean.
- Ikasleren bat edo haren ahaideak larriki iraintzea.
- Berriz falta arinen bat egitea hirurogei eguneko epean.

Honako hauek dira falta oso astunak:

- Lanpostuan justifikatu gabeko bederlatzi puntualtasun-falta baino gehiago izatea hogeita hamar eguneko tartean.
- Justifikatu gabe lanera ez joatea hiru egunetan baino gehiagotan, hogeita hamar eguneko tartean.
- Irakaskuntza-eginkizuna justifikaziorik gabe behin eta berriz uztea.
- Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko edozein kideren kontrako errespetu-falta larriak eta tratu txarrak, hitzezkoak edo egitezkoak.
- Indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen hezkuntza-arloko betebeharrak larriki ez betetzea.
- Berriz falta astunen bat egitea lehenengo arau-haustea egin eta hurrengo sei hilabeteetan.

## **92. artikulua.- Arau-haustek preskribatzea.**

Honako epe hauetan preskribatuko dira langileek egin dituzten arau-haustek: arau-hauste arinak hamar egunen buruan preskribatuko dira; astunak hamabost egunen buruan, eta oso astunak berrogeita hamar egunen buruan; betiere, enpresak arau-hausteen berri izan duen egunetik hasita, eta, gehienez ere, arau-haustea egin eta sei hilabeteren buruan.

## **II. KAPITULUA**

### **ZEHAPENAK**

## **93. artikulua.- Zehapenak eta haiek jakinaraztea.**

Honako hauek izango dira zehapenak:

**Falta arinengatik:** Ahozko kargu-hartzea; errepikatzen badira, idatzizko kargu-hartzea.

**Falta astunengatik:** Idatzizko kargu-hartzea. Errepikatzen badira, enplegua eta soldata 5 eta 15 egun bitartean etetea, eta norberaren espedientean jasotzea.

**Falta oso astunengatik:** Enplegua eta soldata hamasei eta hogeita hamar egun bitartean etetea; lanetik kaleratzeko ohartarazpena, enplegua eta soldata eteteko zehapenarekin batera edo hura gabe; kaleratzea.

Zehapen guztiak idazki bidez jakinaraziko zaizkio langileari, kausaren data eta gertakariak adierazita. Haren kopia helaraziko zaie langileen ordezkariari, enpresa-batzordeko kideei edo ordezkari sindikalari.

## **94. artikulua.- Zehapenak murriztea**

Ikastetxearen titularrak, gertaerak biltzen dituen inguruabarrak eta langilearen ondorengo jokaera kontuan izanda, falta arin, astun eta oso astunengatiko zehapenak gutxitu ahal izango ditu, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

## **III. KAPITULUA**

### **ENPRESABURUEN ARAU-HAUSTEAK**

## **95. artikulua.- Arau-haustek eta haiek ebazteko bideak.**

Ikastetxearen titularraren egintzak edo ez-egiteak, hitzarmen honetan edo gainerako lege-xedapenenetan ezarritakoaren kontrakoak badira, laneko arau-haustetzat joko dira.

Hasiera batean, langile kontratudunek, langileen ordezkarien, ordezkari sindikalaren edo enpresa-batzordearen bidez, ikastetxearen titularrarengana joz saiaturiko dira ustezko arau-haustea zuzendu dadin.

Erreklamatzailaren ustez konponbide egokirik eman ez bazaio titularrari jakinarazi eta hamar eguneko epean, erreklamatzailak espedientea abiarazi ahal izango du batzorde paritarioan, eta hark irizpena emango du hura jaso eta hogeit hamar eguneko epean, gehienez.

Edozein alde jo ahal izango du lan-ikuskaritzaren edo Laneko Lurralde Ordezkaritzaren irizpenera.

Edozein kasutan ere, indarrean dauden lege-xedapenek ezartzen dutena beteko da.

**OHARRAK**



--



## **LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lansarien erregimena ez aplikatzeko prozedura.**

Lansarien erregimena ez aplikatzeko prozedura hasi eta justifikatzeko, enpresako zuzendaritzak lege ezarritako epeetan aurkeztu beharko dizkiete ikastetxeko langileen legezko ordezkariari eta batzorde paritarioari, honako agiri hauek:

- a) Gutxienez azken bi kontabilitate-ekitaldietako kontu ikuskatuak.
- b) Kontu-ikuskaritzako txostenak.
- c) Kudeaketa-txostenak.
- d) Kontuak azaltzen dituen memoria (ustiapenaren kontua, balantzea, joan-etorrien egoera, ondare-aldaketak).
- e) Ekitaldi honetarako aurreikuspena eta aurrekontua. Inbertsio-planen eta hirugarreneko konpromisoen ziozko finantza-beharrak.
- f) Ikastetxeko bideragarritasun-plana.
- g) Beharrezkotzat jotzen den bestelako dokumentazioa.

Langileen legezko ordezkariak nahiz batzorde paritarioak berariaz aztertuko dute dokumentazioa, eta zehaztuko dute ea egoerak ahalbidetzen duen ordainsariak ez aplikatzea, honako irizpide hauek kontuan hartuta: azkeneko bi kontabilitate-ekitaldietan galerak egon dira, ikastetxeak finantza-beharrizanak ditu (maileguak itzuli behar ditu, atzera ezin diren inbertsio-planak finantzatu behar ditu...), eta aribideko ikasturtean aurreikuspena negatiboa da.

Ez aplikatzeko prozedura hasten bada, soldata-baldintza berriak oinarrizko irizpide batzuetan oinarritutako dira, aldeztatik batzorde paritarioan adostuta. Enpresaren eta langileen legezko ordezkarien arteko akordio bidez baino ez da abiatuko prozedura hori.

Ikastetxeren batek hitzarmen kolektibo hau aldi batean ez aplikatzea nahi izanez gero, langileen ordezkariekin (edo horretarako izendatutako batzordearekin) akordiorik lortzen ez bada, ez eta batzorde paritarioan ere, eta gatazkak konpontzeko lanbidearteko akordioen prozeduretara jota ere desadostasun hori konpontzen ez bada, kasuan kasuko ikastetxean bi aldeen arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkariaren gehiengoa), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren esku jartzeko.

Salbuespen kasuetan, lansarien erregimena ez aplikatzeko prozedura 2020. urtean hasten bada eta 2017-2020ko soldatak baditu hizpide (biak barne), prozedura hasi nahi duen ikastetxeak ez badauka aurreko a) eta b) ataletan adierazitako dokumentazioa, langileen legezko ordezkariak eta batzorde paritarioak bestelako agiriak eskatzeko aukera baloratuko dute, egoera horretan lansarien erregimena ez aplikatzea onar daitekeen ala ez zehazteko.

41

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Enpresaren ondorengotza, haren titulartasuna aldatzearen ondorioz.**

1.- Enpresaren, lantokiaren edo haren produkzio-unitate autonomo baten titulartasuna aldatuta ere, horrek ez du besterik gabe ekarriko bertako langileekiko lan-harremana azkentzea; izan ere, enpresaburu berriak aurrekoak lan-arloan eta Gizarte Segurantzaren zituen eskubide eta betebeharrak subrogatuko ditu, pentsioen inguruko betebeharrak barne, betiere gai horren inguruko araudi espezifikoan jasotako baldintzetan. Oro har, lagatzaileak babes sozial osagarriaren arloan bereganatutako betebeharrak guztiak subrogatuko ditu enpresaburu berriak.

2.- Artikulu honetan jasotakoari dagokionez, enpresaren ondorengotza dagoela ulertuko da eskualdatutako erakunde ekonomikoak bere nortasunari eusten badio, hau da, oinarrizko jarduera ekonomiko bat edo jarduera ekonomiko osagarri bat aurrera eramateko baliabide antolatuei eusten baldin badie.

3.- Aldaketa gertatzen denean, lagatzaileak, eta hark ezean, lagapen-hartzaileak, aldaketa horren berri eman beharko die lagatutako enpresako langileen legezko ordezkariari. Bai lagatzaileak bai lagapen-hartzaileak hiru urtean erantzun beharko diete, modu solidarioan, eskualdatze hori gauzatu aurretik sortutako eta bete gabeko lan-arloko betebeharrak. Eskualdaketa delitu deklaratu bada, modu solidarioan erantzun beharko diete lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak eskualdaketa onoren sortutako betebeharrak.

4.- Lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak puntu hauei buruzko informazioa eman beharko diete eskualdatzearen eraginpeko langileen legezko ordezkariak:

- Eskualdaketa zer egunetan egitekoa den.
- Eskualdaketarako arrazoiak zein diren.
- Eskualdaketak zer ondorio juridiko, ekonomiko eta sozial eragingo dizkien langileei.
- Zer neurri aurreikusi diren langileentzat.

Eskualdatzea gertatu aurretik, lagatzaileak behar besteko aurrerapenez eman beharko die informazio hori langileen legezko ordezkariak.

Lagapen-hartzaileak behar besteko aurrerapenez eman beharko die informazio hori langileen legezko ordezkariak, betiere, transmisioaren eraginez langileek enplegu- eta lan-baldintzetan zuzeneko ondorioak izan aurretik.

Sozietateak batu edo banatu egiten diren kasuetan, gorago aipatutako informazioa kasuan kasuko erabakia hartu behar duten batzar nagusien deialdia argitaratzen den unean bertan eman beharko dute beti lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak.

5.- Artikulu honetan informazioa eman eta hitz egin beharri buruz aipatzen diren betebeharrak berdin-berdin bete beharko dira transmisioari buruzko erabakia enpresaburu lagatzaile edo lagapen-hartzaileak hartutakoa izan zein horien gaineko kontrola duen beste enpresaren batek hartutakoa izan. Erabakia hartu zuen enpresak behar adinako informaziorik eman ez diela esanez justifikatzen badute, justifikazio hori ezin izango da kontuan hartu ondorio horietarako.

6.- Enpresa-akordioaren bidez, ondorengotza gauzatu ondoren, eskualdatzea gauzatu zen unean eskualdatutako enpresan, lantokian edo produkzio-unitate autonomoan aplikatzekoa zen hitzarmen kolektibo berak eraenduko ditu ondorengotzaren eraginpeko langileak, aurkakoa itundu ezean.

7.- Eskualdaketak eragiten dion enpresak, lanlekuak edo produkzio-unitateak autonomiari eusten baldin badio, titulartasuna duen enpresaburua aldatzeak ez du ekarriko, berez eta besterik gabe, langileen legezko ordezkarien aginpidea amaitzea. Izan ere, ordezkari horiek beren eginkizunetan jarraituko dute, titulartasuna aldatu aurreko baldintza eta egoera berean.

#### **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Euskalduntzea.**

Hitzarmena sinatzen duten enpresaburuak elkarrekin konpromiso hauek hartzen dituzte, eleaniztasuneko esparru baten barruan benetako elebitasuna lortzeko gizararekin duten konpromisoari jarraituz:

- a) Kontratatzan dituzten langileek beren eginkizunak betetzeko behar diren hizkuntza-eskakizunak aitortuak izango dituzte.
- b) Langileak IRALE planaren barruan euskalduntzeko prozesuak jarraituko du (ikus 55. artikulua).

#### **LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– BERDINTASUN-PLANAK.**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera (gero, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak aldarazi zuen lege hori), enpresek lan-esparruan tratua- eta aukera-berdintasuna errespetatzeko betebeharra dute, eta, helburu horrekin, neurriak hartu beharko dituzte emakumeen eta gizonen artean lan-izaerako edozein diskriminazio-mota saihesteko; neurriak langileen lege-ordezkariarekin negoziatu beharko dituzte, eta, hala badagokio, adostu, lan-legerian ezarritakoaren arabera.

Berrogeita hamar langile edo gehiago duten enpresen kasuan, berdintasun-plana egitera eta aplikatzera bideratu behar dira aurreko paragrafoan aipatutako berdintasun-neurriak. Kapitulu honetan ezartzen dira planaren eragin-esparrua eta edukia; lan-legerian ezarritako moduan negoziatu beharko da hura.

3/2007 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen iragankorren arabera (6/2019 Errege Lege Dekretuak gehitu zuen), aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzeko:

- Ehun eta berrogeita hamar langiletik berrehun eta berrogeita hamar langilera arteko enpresek urtebeteko epea izango dute berdintasun-planak onartzeko.
- Ehun langiletik ehun eta berrogeita hamar langilera arteko enpresek bi urteko epea izango dute berdintasun-planak onartzeko.
- Berrogeita hamar langiletik ehun langilera arteko enpresek hiru urteko epea izango dute berdintasun-planak onartzeko.

Iragankortasun-aldi horiek martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatuko dira; hau da, 2019ko martxoaren 7tik aurrera.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA.– Egun eszedentzian daudenak 2020-2021 ikasturterako birkokatzea.**

Birkokatze orduan dauden desberdintasunak ikusita, aldeek, salbuespen gisa eta behin-behinean (gaur egun eszedentzian dauden eta kontratatu mugagabea duten pertsonak 2020-2021 ikasturterako birkokatze) honako hau erabaki dute:

- Enpresaburuak gaur egun eszedentzian dauden eta kontratu mugagabea duten pertsonen eta 2020-2021 ikasturterako aurreikusitako egiturazko hutsuneak dituztenei buruz dauzkan datuen arabera, aldeek, salbuespen gisa, erabaki dute 2020-2021 ikasturterako, egun dauden eszedentziak honela birkokatzea, kontuan hartuta (i) Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko etapa (0-3 urte) eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZL) eta aintzat hartuta (ii) lanpostu horiek betetzean ezin zaiela lehentasunik eman lanpostu hutsak betetzen diren ikastetxeetan 2 urteko antzinasuna edo luzeagoa duten aldi baterako langileei.
- Datozen urteetan jaitsiera demografikoa espero denez irakasleen plantillak mantendu eta gaztetzeko ezarri den akordio baldintzen arabera, zeina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin sinatu baitzen, eta haren indarraldian zehar, Birkokatze Batzordean akordioa sinatu duten erakunde sindikaletako eta enpresaburu-erakundeetako kideak adina pertsona egongo dira, eta bere egitekoa izango da lanpostu hutsak esleitzea.
- Aldeek hitz ematen dute akordio bat lortuko dutela Birkokatze Erregelamenduaren gainean, 2020ko abenduko lehen asterako.
- Birkokatze Erregelamendua garatu eta onartzeko, aldeek hitz ematen dute Hitzarmenaren 23. artikulua Erregelamendu honen edukiaren arabera egokituko dutela.

43

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **1. Bermea.- Hobekuntza ekonomikoak xurgatzea. Baldintza onenen iraupena.**

Itundutako hobekuntza ekonomikoak xurgatu ahal izango dituzte legezko xedapenez aurten ezartzen direnek zein hitzarmena indarrean jartzean ikastetxeak borondatezko izaerarekin ematen ari direnek.

Ikastetxeak ezarritako baldintzetatik onuragarrienei eutsiko zaie, baldin eta baldintza horiek, oro har, hitzarmen honetan zehazturikoak baino hobeak badira; hala, langileetako batek ere ez du kalterik jasoko hitzarmen honetako inongo atala ezartzearen ondorioz.

### **2. Berrikuspena.- Hitzarmen honetan arautu ez diren kontuak.**

Hitzarmen honetan arautu ez diren kontu guztiei dagokienez, aplikagarri den hezkuntza-arloko legeria espezifikoan, Langileen Estatutuan eta Autonomia Erkidegoan aplikagarri den gainerako lan-arauetan xedaturikoari jarraituko zaio.

## I. ERANSKINA

## SOLDATA-TAULAK

	2019-11-09KO LHK-N HARTUTAKO AKORDIOAREN ARABERAKO SOLDATA-TAULAK					
	SOLDATA 2017	ANTZINATASUNA 2017	SOLDATA 2018	ANTZINATASUNA 2018	SOLDATA 2019	ANTZINATASUNA 2019
<b>1. TALDEA</b>						
<b>HAUR-HEZKUNTZA. 1. ZIKLOA</b>						
Maisu/maistra	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
HTE	1.601,63	33,94	1.627,26	34,48	1.676,07	35,51
Laguntzailea	1.386,82	34,98	1.409,01	35,54	1.451,28	36,60
<b>HAUR HEZKUNTZA. 2. ZIKLOA</b>						
Zuzendaria.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	423,59	18,22	430,37	18,51	443,28	19,07
Zuzendariordea.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	391,99	16,02	398,26	16,27	410,21	16,76
Ikasketa-burua.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	352,66	15,17	358,30	15,41	369,05	15,88
Irakasle titularra eta espezifikoak.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
Instrukorea.	1.545,90	33,94	1.570,63	34,48	1.617,75	35,51
<b>LEHEN HEZKUNTZA</b>						
Zuzendaria.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	423,59	18,22	430,37	18,51	443,28	19,07
Zuzendariordea.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	391,99	16,02	398,26	16,27	410,21	16,76
Ikasketa-burua.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	352,66	15,17	358,30	15,41	369,05	15,88
Saileko burua.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
"	313,66	13,47	318,67	13,69	328,23	14,10
Irakasle titularra eta espezifikoak.	2.257,35	42,14	2.293,47	42,81	2.362,27	44,10
Instrukorea, hezitzailea.	1.682,43	33,94	1.709,35	34,48	1.760,63	35,51
<b>DBH, 1. zikloa</b>						
<b>*2019: sailik diplomatua; lizenziatuak eta graduatuak, maila honetan, eta DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko irakasleak</b>						
Zuzendaria.	2.394,91	42,14	2.433,23	42,81	2.506,22	44,10
"	423,59	18,22	430,37	18,51	443,28	19,07
Zuzendariordea.	2.394,91	42,14	2.433,23	42,81	2.506,22	44,10
"	391,99	16,02	398,26	16,27	410,21	16,76
Ikasketa-burua.	2.394,91	42,14	2.433,23	42,81	2.506,22	44,10
"	352,66	15,17	358,30	15,41	369,05	15,88

Sailleko burua.	2.394,91	42,14	2.433,23	42,81	2.506,22	44,10
"	313,66	13,47	318,67	13,69	328,23	14,10
Irakasle titularra eta espezifikokoak.	2.394,91	42,14	2.433,23	42,81	2.506,22	44,10
Instruktoarea, hezitzailea.	1.784,80	33,94	1.813,36	34,48	1.867,76	35,51
<b>DBH, 2 zikloa</b>						
<b>*2019: DBHko 1. zikloko lizentziadunak eta graduatuak barne</b>						
Zuzendaria.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	625,04	27,02	635,04	27,45	654,09	28,27
Zuzendariordea.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Ikasketa-burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Sailleko burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	446,07	19,24	453,20	19,55	466,80	20,13
Irakasle titularra eta espezifikokoak.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
Instruktoarea, hezitzailea.	2.254,48	41,85	2.290,55	42,52	2.359,27	43,80
<b>BATXILERGOAK</b>						
Zuzendaria.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	625,04	27,02	635,04	27,45	654,09	28,27
Zuzendariordea.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Ikasketa-burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Sailleko burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	446,07	19,24	453,20	19,55	466,80	20,13
Irakasle titularra eta espezifikokoak.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
Instruktoarea, hezitzailea.	2.254,48	41,85	2.290,55	42,52	2.359,27	43,80
<b>PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK / MODULU PROFESIONALAK / LANBIDE HASTAPENETARAKO IKASTEGIAK</b>						
Zuzendaria.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	625,04	27,02	635,04	27,45	654,09	28,27
Zuzendariordea.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Ikasketa-burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	549,28	23,70	558,07	24,08	574,81	24,81
Sailleko burua.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
"	446,07	19,24	453,20	19,55	466,80	20,13
Irakasle titularra eta espezifikokoak.	2.623,56	52,03	2.665,54	52,86	2.745,50	54,44
Irakasle laguntzailea edo agregatua.	2.477,87	43,17	2.517,52	43,86	2.593,04	45,17
Instruktoarea, hezitzailea.	2.254,48	41,85	2.290,55	42,52	2.359,27	43,80
<b>HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK</b>						
Hezkuntza-laguntzako espezialistak	1.807,47	33,17	1.836,75	33,71	1.891,85	34,72
<b>2. TALDEA</b>						
<b>IRAKASLE EZ DIREN LANGILE TITULADUNAK</b>						

Goi-mailako tituludunak	2.623,56	52,03	2.665,54	52,87	2.745,50	54,45
Erdi-mailako tituludunak	2.257,35	42,14	2.293,47	42,82	2.362,27	44,10
<b>ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK</b>						
Administrazioko edo idazkaritzako burua.	1.860,75	41,44	1.890,89	42,11	1.947,62	43,37
Bulego-burua.	1.694,63	35,37	1.722,08	35,94	1.773,75	37,02
Ofizial administratib, kontulari ofiziala, merkataritza-agentea.	1.694,63	34,98	1.722,08	35,54	1.773,75	36,61
Administrazio-laguntzailea.	1.683,21	34,98	1.710,47	35,54	1.761,79	36,61
<b>LAGUNTZA-LANGILEAK</b>						
Ikasleen zaintzailea.	1.457,33	34,98	1.480,94	35,54	1.525,37	36,61
<b>ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK</b>						
Etezezaina.	1.573,37	34,98	1.598,86	35,54	1.646,83	36,61
Atezezaina.	1.573,37	34,98	1.598,86	35,54	1.646,83	36,61
Zaintzailea. Gauzezaina.	1.546,48	34,98	1.571,53	35,54	1.618,68	36,61
Harreragileak, telefonista	1.573,37	34,98	1.598,86	35,54	1.646,83	36,61
Mantentze-lanetako, lorezaintzako eta askotariko lanbideetako langilea	1.457,33	34,98	1.480,94	35,54	1.525,37	36,61
1. mailako ofiziala, 1. maila bereziko gidaria.	1.766,44	34,98	1.795,05	35,54	1.848,91	36,61
Gelazainburua.	1.573,37	34,98	1.598,86	35,54	1.646,83	36,61
Garbiketa-, jostkinza-, ikuzketa- eta lisaburdina-zerbitzuko langilea eta jantoki-zerbitzuko langilea.	1.468,40	34,98	1.492,19	35,54	1.536,95	36,61
Sukaldeko burua.	1.766,44	34,98	1.795,05	35,54	1.848,91	36,61
Sukaldaria.	1.567,52	34,98	1.592,91	35,54	1.640,70	36,61
Sukaldeko laguntzailea.	1.457,33	34,98	1.480,94	35,54	1.525,37	36,61
2. mailako ofiziala, 2. mailako gidaria.	1.567,52	34,98	1.592,91	35,54	1.640,70	36,61
Kualifikaziorik gabeko langilea.	1.457,33	34,98	1.480,94	35,54	1.525,37	36,61

IRAKASKUNTZA ESPEZIALIZATUAK

2019-11-09KO LHK-N HARTUTAKO AKORDIOAREN ARABERAKO SOLDATA-TAULAK

	SOLDATA 2017	ANTZINATASUNA 2017	SOLDATA 2018	ANTZINATASUNA 2018	SOLDATA 2019	ANTZINATASUNA 2019
<b>IRAKASLEAK</b>						
Zuzendaria.	1.556,14	43,34	1.581,04	44,03	1.628,47	45,35
"	511,16	20,12	519,34	20,44	534,92	21,05
Zuzendariordea.	1.556,14	43,34	1.581,04	44,03	1.628,47	45,35
"	483,89	20,05	491,63	20,37	506,38	20,98
Ikasketa-burua.	1.556,14	43,34	1.581,04	44,03	1.628,47	45,35
"	456,25	18,91	463,55	19,21	477,45	19,79
Saileko burua.	1.556,14	43,34	1.581,04	44,03	1.628,47	45,35
"	426,08	17,69	432,90	17,97	445,88	18,51
Irakasle titularrak eta espezifikoa.	1.556,14	43,34	1.581,04	44,03	1.628,47	45,35
Irakasle laguntzaileak edo agregatuak.	1.450,42	40,30	1.473,63	40,94	1.517,84	42,17
Instruktorea, hezitzailea.	1.299,77	35,66	1.320,57	36,23	1.360,18	37,32
<b>ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK</b>						
Administrazioko edo idazkaritzako burua.	1.628,07	41,44	1.654,45	42,11	1.704,08	43,37
Bulego-burua.	1.500,48	35,37	1.524,79	35,94	1.570,53	37,02
Ofizial administratiboa, kontulari ofiziala, merkataritza-agentea.	1.500,48	34,98	1.524,79	35,54	1.570,53	36,61
Administrazio-laguntzaileak.	1.492,66	34,98	1.516,84	35,54	1.562,35	36,61
<b>LAGUNTZA-LANGILEAK</b>						
Ikasleen zaintzaileak.	1.291,75	34,98	1.312,67	35,54	1.352,05	36,61
<b>ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK</b>						
Erkezaina.	1.393,27	34,98	1.415,84	35,54	1.458,32	36,61
Atezaina.	1.393,27	34,98	1.415,84	35,54	1.458,32	36,61
Zaintzailea. Gauzaina.	1.371,46	34,98	1.393,68	35,54	1.435,49	36,61
Mantentze-lanetako, lorezaintzako eta askotariko lanbideetako	1.291,75	34,98	1.312,67	35,54	1.352,05	36,61
1. mailako ofiziala, 1. maila bereziko gidaria.	1.564,80	34,98	1.590,15	35,54	1.637,85	36,61
Gelazainburua.	1.393,27	34,98	1.415,84	35,54	1.458,32	36,61

Garbiketa-, joskintza-, ikuzketa- eta lisaburdina-zerbitzuko langilea eta janaki-zerbitzuko langilea.	1.302,22	34,98	1.323,31	35,54	1.363,01	36,61
Sukaldeko burua.	1.564,80	34,98	1.590,15	35,54	1.637,85	36,61
Sukaldaria.	1.389,22	34,98	1.411,72	35,54	1.454,08	36,61
Sukaldeko laguntzailea.	1.291,75	34,98	1.312,67	35,54	1.352,05	36,61
2. mailako ofiziala, 2. mailako gidaria.	1.389,39	34,98	1.411,90	35,54	1.454,26	36,61
Kualifikaziorik gabeko langilea.	1.291,75	34,98	1.312,67	35,54	1.352,05	36,61



**OHARRAK**



**1. TALDEA**  
**HAUR-HEZKUNTZA. 1. ZIKLOA**

	2019-11-09KO LHK-N HARTUTAKO AKORDIOAREN	
	SOLDATA 2020	ANTZINATASUNA 2020
Maisu/maistra	2.437,86	45,51
HTE	1.729,71	36,65
Laguntzailea	1.497,72	37,77
<b>HAUR HEZKUNTZA, 2. ZIKLOA</b>		
Zuzendaria.	2.437,86	45,51
"	457,47	19,68
Zuzendariordea.	2.437,86	45,51
"	423,34	17,30
Ikasketa-burua.	2.437,86	45,51
"	380,86	16,38
Irakasle titularra eta espezifikook.	2.437,86	45,51
Instruktorea.	1.669,52	36,65
<b>LEHEN HEZKUNTZA</b>		
Zuzendaria.	2.437,86	45,51
"	457,47	19,68
Zuzendariordea.	2.437,86	45,51
"	423,34	17,30
Ikasketa-burua.	2.437,86	45,51
"	380,86	16,38
Saileko burua.	2.437,86	45,51
"	338,74	14,55
Irakasle titularra eta espezifikook.	2.437,86	45,51
Instruktorea, hezitzailea.	1.816,97	36,65
<b>DBH, 1. zikloa</b>		
<b>*2019: soilik diplomatuak; lizentziatuak eta graduatuak, maila honetan, eta DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko irakasleak</b>		
Zuzendaria.	2.586,42	45,51
"	457,47	19,68
Zuzendariordea.	2.586,42	45,51
"	423,34	17,30
Ikasketa-burua.	2.586,42	45,51
"	380,86	16,38
Saileko burua.	2.586,42	45,51
"	338,74	14,55
Irakasle titularra eta espezifikook.	2.586,42	45,51
Instruktorea, hezitzailea.	1.927,53	36,65
<b>DBH, 2 zikloa</b>		
<b>*2019: DBHko 1. zikloko lizentziadunak eta graduatuak barne</b>		
Zuzendaria.	2.833,36	56,19
"	675,02	29,18
Zuzendariordea.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Ikasketa-burua.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Saileko burua.	2.833,36	56,19
"	481,74	20,78
Irakasle titularra eta espezifikook.	2.833,36	56,19
Instruktorea, hezitzailea.	2.434,77	45,20

<b>BATXILERGOAK</b>		
Zuzendaria.	2.833,36	56,19
"	675,02	29,18
Zuzendariordea.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Ikasketa-burua.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Saileko burua.	2.833,36	56,19
"	481,74	20,78
Irakasle titularra eta espezifikoak.	2.833,36	56,19
Instruktorea, hezitzailea.	2.434,77	45,20
<b>PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK / MODULU PROFESIONALAK / LANBIDE</b>		
Zuzendaria.	2.833,36	56,19
"	675,02	29,18
Zuzendariordea.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Ikasketa-burua.	2.833,36	56,19
"	593,20	25,60
Saileko burua.	2.833,36	56,19
"	481,74	20,78
Irakasle titularra eta espezifikoak.	2.833,36	56,19
Irakasle laguntzailea edo agregatua.	2.676,02	46,62
Instruktorea, hezitzailea.	2.434,77	45,20
<b>HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK</b>		
Hezkuntza-laguntzako espezialistak	1.952,39	35,83
<b>2. TALDEA</b>		
<b>IRAKASLE EZ DIREN LANGILE TITULUDUNAK</b>		
Goi-mailako tituludunak	2.833,36	56,20
Erdi-mailako tituludunak	2.437,86	45,52
